

Azken txostena

Eredu agroekologikoaren eskala-jauzia: Gipuzkoako eta Ekuadorreko kasu ikerketak



Eduardo Malagón Zaldua (koord.)
Irati Labaien Eiguren
Aintzira Oñederra Aramendi
Goiuri Alberdi Aresti
Xavier Alejandro León Vega

Ikerketa honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren finantzamendua izan du.



Azken txostena. Eredu agroekologikoaren eskala-jauzia: Gipuzkoako eta Ekuadorreko kasu ikerketak

Ikertzaile-taldea: Eduardo Malagón Zaldua (koord.) Hegoa (EHU), Irati Labaien Eiguren Hegoa (EHU), Aintzira Oñederra Aramendi (Asunek Behatokia), Goiuri Alberdi Aresti (Asunek Behatokia), Xavier Alejandro León Vega (Universidad Intercultural de las Nacionalidades y Pueblos Indígenas - Amawtay Wasi).

2024



www.hegoa.ehu.eus

EHU • Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: (34) 946 017 091

EHU • Carlos Santamaría Zentroa
Plaza Elhuyar 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 017 464

EHU • Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 014 287

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.
ISBN: 978-84-19425-42-3



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

I. Atala. Ikerketaren aurkezpena	5
1. Sarrera	7
2. Metodologia	11
3. Eskala-jauzia elikadura sistema alternatiboetan	12
II. Atala. Gipuzkoako KKT-en karakterizazioa eta hornikuntza unitateen problematika	17
1. KKT-en eta HU-en ezaugarriak	19
2. Kontsumo kooperatiben eta taldeen eskakizunak	25
3. Mugaz gaindiko hornikuntza-unitatea sortzeko baldintzak	33
III. Atala. Elikadura sistema eta merkatu alternatiboak Ekuadorreko Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan	39
1. Ekuadorreko elikadura sare alternatiboak	41
2. Merkatu agroekologikoak	42
3. Aztertutako esperientzien ezaugarri nagusiak	44
3.1. Pichinchako probintzia	47
3.2. Imbaburako probintzia	48
3.3. Cotopaxiko probintzia	50
3.4. Identifikatutako indargune eta botila-lepo nagusiak	51
4. Nazioarteko lankidetzarako ikaspenak	55
Ondorioak	61
Bibliografia	67
Eranskinak	73
1. Eranskina. Hornikuntza unitateen elkarriketarako fitxa	75
2. Eranskina. Gipuzkoako kontsumo Kooperatibei Zuzendutako galdetegia	76
3. Eranskina. Merkaturatze zirkuitu laburren esperientzia agroekologiko nagusiak Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan	78

1. Pichincha: Merkaturatzeko azoka alternatiboak eta merkatu agroekologikoak Beste batzuk	78 93
2. Imbabura: Merkataritza azoka alternatiboak eta merkatu agroekologikoak Beste batzuk	93 98
3. Cotopaxi: Merkataritza azoka alternatiboak eta merkatu agroekologikoak Beste batzuk	99 101

Taulen aurkibidea

1. Taula. Kontsumo kooperatibak eta elkarteak	20
2. Taula. Hornikuntza Unitateen ezaugarri nagusiak	22
3. Taula. HUetako arduradunei egindako elkarrizketen emaitzak	24
4. Taula. Mugaz gaindiko HUaren AMIA matrizea	34
5. Taula. Elikadura merkatu alternatiboko esperientziak Ekuadorreko Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan	45
6. Taula. Ekuadorreko elikagaien merkatu alternatiboetan identifikatutako aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulezien (AMIA) matrizea	54
7. Taula. Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekuadorrerako bideratutako nazioarteko lankidetzako diru-laguntzak (2014-2023)	56


Irudien aurkibidea

1. Irudia. Kontsumo Kooperatiba eta Elkarte parte-hartzaileetan enplegatutako pertsona kopurua	26
2. Irudia. Iparraldearen eta Hegoaldearen artean harremanak izan dituzten Kontsumo Kooperatiba eta Elkarteen ehunekoak	26
3. Irudia. Interes gehien pizten duten Iparraldeko produktuak	27
4. Irudia. Iparraldetik ekarritako elikagaiek bete beharreko irizpideak	27
5. Irudia. HUekin izandako esperientzian aurkitutako zailtasunak	28
6. Irudia. KKT bat behar bezala hornitzeko, HUen zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak	29



I. Atala.

Ikerketaren aurkezpena



I. Sarrera

Hasteko, elikadura sistema bat edo nekazaritza eta elikadura sistema (NES) bat da elikagaiak ekoiztearekin, prozesatzearekin, garraiatzearekin, banatzearekin, kontsumitzearekin eta haien hondakinak kudeatzearekin lotutako jardueren multzoa. NES horren ikuspegi zabalago batek hartu beharko lituzke, halaber, jarduera horietan parte hartzen duten eragileak (nekazari txikietatik hasi eta korporazio multinazional handietaraino, tartean gobernuak eta nazioarteko organismoak ere daudela), eragile horien arteko harremanak (era guztietakoak) eta jarduera horiek eta eragileen arteko harremanak arautzen dituen esparru instituzional eta arauemailea. Beraz, NESak kontuan hartzen ditu nekazaritzan eta elikaduran parte hartzen duten kultura, ekonomia eta gizarte alderdiak [1].

Gaur egungo NES globala eredu agroindustrialean oinarritzen da, eta ondoriok latzak ditu gizartean eta ingurumenean. Hain zuzen ere, gaur egungo krisi ekosozialaren kausa nagusietako bat da. Sistema agroindustrialearen praktika hegemonikoek erregai fosilak behar dituzte erabat, eta baliabide naturalak modu intentsiboan erabiltzen dituzte. Halaber, sistema hura berotegi efektuko gasen (BEG) isurketen zati handi baten erantzule da, eta, hortaz, berotze globala eta klima aldaketa bultzatzen du, eta bioaniztasunaren galera eta horri lotutako hondamendi naturalak eragiten du. Gainera, desberdinkeria larriagotzen du eta osasun publikoari kalte egiten dio, gaixotu egiten baikaitu [2-8].

NES agroindustrialearen ondorioz ere, nekazaritza ustiategi txikien egoera gero eta prekarioagoa da. Nekazaritza industriak eta banatzaile handiek sustatutako ekoizpen-ereduak ustiategi txiki eta ertainen eta ekoizleen prekarizazioa ekarri du berekin. Ondorioz, ustiategi horien kopuruak behera egin du, pertsona asko hiritara joan dira, baserri eremuaren nekazaritza izaera gutxitu da, lurrak esku gutxiagotan geratu dira eta nekazaritza eta abeltzaintza finantzarizatu dira. Gaur egun, lehen sektorearen gainbehera eta belaunaldi arteko erreleborik ez egotea arazo handiak dira, Iparralde zein Hegoalde Globalean [9].

Hala ere, gero eta pertsona gehiagok garrantzia ematen diete elikagaiei, eta horiek osasungarriak eta konfiantzazkoak izatea nahi dute. Gainera, aldi berean, beren inguruko lehen sektorea babesten dute. Beraz, kontsumitzaileek gero eta gehiago kontsumitzen eta baloratzen dituzte produktu agroekologikoak, ikusten baitute horiek produktu agroindustrialak baino kalitate handiagoa eta ingurumen-inpaktu txikiagoa dutela [10], eta badaude beste motibazio sozial eta etiko batzuk ere tartean. Hala, harreman zuzenak eta horizontalak bilatzen dituzte ekoizleekin, eta elikadura sare alternatiboak (ESA) sortzen dituzte elikadura-sistema konbentzionalaren

aurrean. Alternatiba horietako batzuk Kontsumo Kooperatiba eta Taldeen (KKT) bitartez antolatzen dira.

Ikerketa honen helburu nagusia, hortaz, Gipuzkoako eta Ekuadorreko elikadura sare alternatiboek dituzten erronka nagusiak identifikatzea da, hain zuzen ere, eskala-jauziaren arazoari aurre egiteari dagokionez, eta lankidetzarako ikaspenak ateratzea ere. Bigarren mailako helburu gisa aurkitzen ditugu, lehenik eta behin, elikagaiak merkaturatzeko bide berriak aztertzea eta horiek lehen sektorea sustatzeko duten ahalmena handitzea; bigarrenik, Elikadura Sare Alternatiboen (ESA) azterketa konparatua egitea aipatutako testuinguru bietan; eta, hirugarrenik, hornikuntza eta logistika aukerek bete behar dituzten baldintzak identifikatzea KKTen eskaintza handitzeko.

Ikerketa eremuen testuingurua

Gipuzkoan, lehen sektorea BPGaren % 0,6 inguru da, eta enpleguaren % 1,8. 2020ko Nekazaritza Erroldaren arabera, Gipuzkoan 4.781 ustiategi daude (2009an baino 991 edo % 17 gutxiago), eta horien batez besteko nekazaritza azalera erabilgarria 7,97 hektareakoa da (2009an baino 0,5 gehiago). Guztira, nekazaritzarako, abeltzaintzarako edo basozaintzarako 71.543 hektarea erabiltzen dira. Horietatik 38.111 hektareak osatzen dute nekazaritza azalera erabilgarria, eta belardiak azalera horren % 88 dira. Gainontzekoa basogintzarako lursailak dira. Hortaz, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza bideratutako azalera Lurraldearen azalera osaren % 36 da. Gipuzkoako ustiategietako titularren % 33,8k 65 urte baino gehiago dituzte (horietatik % 25,6 emakumeak dira), eta % 14,4k bakarrik dute 45 urte baino gutxiago (% 22,7 emakumeak). Ekoizpen jarduera nagusiak dira, ekoizpen balioaren arabera, basogintza (% 24,8), esnetarako behiak (% 16,8), baratzezaintza (% 12,1), haragitarako behiak (% 8,6) eta mahastia (% 8,3)¹. Lehen sektorearen tamaina txikiaren eta biztanleria-dentsitate handiaren ondorioz, Gipuzkoak (Euskal Autonomia Erkidego osoak bezalaxe) kanpoko elikagaiak inportatzeko behar handia du.

Beraz, Gipuzkoako lehen sektorea indartzeko, instalazio berriak sustatu beharra dago, hain zuzen ere, tokiko ekoizpena handitzeko, kanpoko elikagaietikiko menpekotasuna murrizteko eta elikagaien eskaintza eta eskaera berronkatzen laguntzeko. Hala, produktuak merkaturatzeko bide berriak zabaltzean lehen sektorearen bideragarritasun ekonomikoa indar dezakegu, baina prezio eta lan baldintza duinak bermatu behar ditugu. Nolanahi ere, tokiko produktuen eskasiak inguruko

1 2022ko Nekazaritzako Azken Ekoizpen datuen arabera.

lurraldeei begiratzera behartzen ditu ESAak eta KKTak, kontsumitzaileei gertuko elikagaiak eskuratzeko aukera eman ahal izateko, eta ekimen horien bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko.

ESAek Gipuzkoan duten egoera aztertzeke, bada, kasu praktiko batean oinarritu gara. Halaber, mugaz gaindiko hornikuntza unitate bat osatzeari buruzko hausnarketa sustatu dugu, Gipuzkoako eta Nafarroako iparraldeko kontsumitzaileei Ipar Euskal Herriko ekoizleen produktuak eskaini ahal izateko. Ikerketa proiektu honetan, ESAen arteko lankidetzaren bitartez garatutako mugaz gaindiko logistika horrek izan beharko lituzkeen ezaugarriak eta bete behar lituzkeen baldintzak aztertuko ditugu,

Beste alde batetik, Ekuadorreko nekazaritza eta elikadura sistemak kontzentrazio handia du eta metodo agroindustrialetan oinarritzen da. Horrek ingurumen arazo handiak eragiten ditu, eta, gainera, ez du landa eremuan dagoen gosearen eta pobreziaaren arazoa konpontzen. Izan ere, Ekuadorreko nekazaritza eta elikadura sistemak hainbat erronka ditu, hala nola klima aldaketa, deforestazioa, baliabide naturalen gaineko presioa eta nekazaritzako produktuen prezioen aldakortasuna.

Nekazaritzako lurren % 80 eta ureztatzeko uraren % 63 agroindustriaren eta agronegozioaren eskuetan daude, nahiz eta Ekuadorreko elikagaien % 64 nekazari txikiek ekoizten dituzten [11]. Beraz, Ekuadorreko nekazaritza eta elikadura sistema agroindustriaren eta agronegozioaren eskuetan dago, eta horiek iraultza berdearen eredian oinarritzen duten beren produktibitatea, hau da, sargai kimikoak eta erregai fosilak erabiltzean eta eskulana murriztean. Nagusi den nekazaritza eta elikadura sistemak, bada, ez ditu aintzat hartzen elikagaiak ekoizteko sistema horren produktibitatea hobetzeko eragiten dituen ingurumen eta gizarte kostuak [12].

Aipatu den bezala, herrialdearen barne kontsumorako elikagaien ekoizpena baserriko nekazaritza familiarrari dagokio, baina, maiz, ekoizpen baserritar horrek iraultza berdearen eredia errepikatzen du eskala txikian. Hori onuragarria da transnazional handientzat eta elikadura-enpresa agroindustrialentzat, beren haziak eta agrokimikoak saltzen baitizkiete nekazari txiki horiei.

Beste alde batetik, elikagaien banaketa eta merkaturatzea, Ekuadorren, supermerkatuen bitartez bideratzen da, batez ere hiri-eremuan. Ondorioz, ekoizleek artekariak eta enpresa agroindustrialei saldu behar izaten diete bere produktua, ezin baitituzte supermerkatu-kate handien baldintzak bete. Supermerkatuen bidezko banaketa eta merkaturatzea lau kate hauek kontrolatzen dute Ekuadorren: Corporación La Favorita, Corporación el Rosado, Almacenes TIA eta Mega Santa María. Kate horiek, izan ere, herrialdean bide horretatik saldutakoaren % 90 kontrolatzen dute [13].

Kontsumoari dagokionez, nagusi den nekazaritza eta elikadura sistemak aldaketak egin ditu nekazaritzako balio-katean, eta, aldaketa horien ondorioz, irabaziak are gehiago kontzentratu dira agroindustriak eta merkaturatze-kateek kontrolatutako maila horietan. Izan ere, dieta aldaketa finkatu da, eta zerealak elikaduraren oinarri bilakatu dira. Gainera, ekoizpenaren zati handi bat abereen elikadurara bideratu da. Hala, enpresa agroindustrialak merkaturatzea distortsionatzen ari dira, eta elikagaien sektorearen kontzentrazio-maila handitzen ari dira [12].

Ekuadorreko gaur egungo nekazaritza eta elikadura sistemak, beraz, kontzentrazio gero eta handiagoa eragiten du merkaturatzean. Hala, oztopatu egiten dute elikagaiak dibertsifikatzea eta hainbat eragilek banaketa horretan parte hartzea, hala nola kontsumitzaileen eskuetan dauden tokiko banaketa-sistemetan oinarritzen diren mugimendu nekazariak eta agroekologikoak.

Hala ere, azken urteotan, nekazariak eta nekazaritza eta elikadura sistemako beste eragile batzuek gero eta interes handiagoa erakutsi dute nekazaritza jardunbide iraunkorren eta agroekologikoen inguruan. Jardunbide horiek nekazaritzaren ingurumen-inpaktua murrizteko, bioaniztasuna sustatzeko eta nekazaritza-sistemen erresilientzia hobetzeko helburua dute. Esate baterako, agroekologia, Ekuadorren, elikagai osasungarriak ekoiztera, natura babestera eta landa eremuak eraldatzera bideratzen da. Nekazaritza organikoa, bioongarrien erabilera eta bertako hazien kontserbazioa, besteak beste, nekazaritza eta elikadura sisteman eskala txiki eta ertainean pizten ari den eztabaidaren eta sustatzen ari diren aldaketen adibide dira.

Ekuadorreko gobernuak, bere aldetik, nekazaritza eta elikadura sistema babesteko politikak eta proiektuak ezartzen saiatu da. Esate baterako, baserritarrak trebatzeko programak, praktika agroekologikoak garatzeko sustagarriak, logistika eta merkaturatzearako sarbidea hobetzeko azpiegitura proiektuak, eta nekazaritza sektoreko ikerketaren eta berrikuntzaren sustapena [14]. Hala ere, politika horietako askok ez dute behar bezalako aurrekontua eta laguntza teknikoa izan agroekologian eta elikadura burujabetzan oinarritutako nekazaritza eta elikadura sistema baterako bidean aurrera egiteko.

Lanaren egitura

Ikerketa honela egituratu dugu. Hurrengo atalean, ikerketan erabilitako metodologia aurkeztuko dugu, eta gero Gipuzkoako eta Ekuadorreko elikadura sistema alternatiboen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu. Horretarako agroekologiaren, elikadura burujabetzaren eta ekonomia sozial eta eraldatzailearen printzipioak

biltzen dituen ikuspegi teorikoan oinarrituko gara. Gero, II. atalean, KKTen problematika aztertuko dugu Gipuzkoaren kasurako. Horretarako, mugaz gaindiko Hornikuntza Unitate (HU) bat osatzean zentratuko gara, eskala-jauzia lortzeko oztopoak gainditzeko tresna gisa. III. Atalean, Ekuadorreko ESAen ikerketa egingo dugu, Pichincha, Cotopaxi eta Imbaburako merkatu agroekologikoetan zentratuta. Sare horiek kontsumo arduratsua sustatzen dute eta tokiko elikagai jasagarriak eskuratzea errazten dute, baina eskalagarritasunarekin eta finkatze ekonomikoarekin lotutako erronkak dituzte.

Azkenik, oztopo berdinak identifikatzen ditugu lurralde bietan, hala nola zailtasun logistikoak eta ekonomikoak; eta garapenerako lankidetzak muga horiek gainditzeko lagunduko duten estrategiak diseinatzeko duen ahalmena aztertzen dugu.

2. Metodologia

Ikerketa hau metodologia kuantitatiboan oinarritzen da, eta Triangulazio Printzipioari jarraitu dio. Hau da, hainbat datu-iturri erabili ditugu ikergai den fenomenoaz aztertzeko, eta bide desberdinetatik jasotako ondorioak bat datozela egiaztatu dugu [15]. Gipuzkoaren kasuan, jasotako informazio guztiarekin AMIA azterketa bat egin dugu, KKTek Tokiko Elikadura Sistema indartzeko duten ahalmena helburu hartuta, batez ere HUen edo *food hub* delakoen bitartez. Lehenengo fase batean Euskal Herriko ekoizleen partaidetzarekin garatutako HUak aztertu genituen. Elkarriketa erdiegituratuen bitartez (1. eranskina) beren esperientzietan oinarritutako ikaspenak, indarguneak, eta ahuleziak identifikatu genituen. Bigarren fasean, KKTen ekarpenak jaso genituen, eta, hala, mugaz gaindiko HUaren bideragarritasunari buruzko aurrediagnostiko bat osatu genuen. Hala, inkesta bat egin genuen (2. eranskina) KKTek eskatzen dituzten produktuei buruzko informazioa biltzeko (produktu motak, kantitateak, irizpideak), baita haien behar logistikoak identifikatzeko ere. Gainera, gaur egun erabiltzen dituzten hornikuntza-zerbitzuei buruzko hausnarketa egin zen (erraztasunak, oztopoak...).

Gero, Talde Fokal bat osatu genuen (online formatuan), mugaz gaindiko HUaren bideragarritasuna lortzeko baldintzak lantzeko eta KKTen arteko lankidetzak garatzeko helburuz. Horretarako gutxieneko baldintzak eta/edo beharrezko baldintzak ezarri ziren. Baldintza horietan sakontzeko, bost azpigai nabarmendu ziren: logistika, lankidetzarako baldintzak, bideragarritasun ekonomikoa, konpromisoa eta behar diren baliabideak. Parte-hartzaileen interakzioa sustatzeko, arbel digitala erabili genuen, Zoom bitartez, eta parte-hartzaile bakoitzak bere oharrak idatzi ahal izan zituen bertan.

Ekuadorren kasuan, ikerketa partizipatiboko ikuspegi bat erabili genuen, metodo kuantitatiboetan oinarrituta. Ikerketa bibliografiko sakona egin genuen, batez ere interneten bilatuz. Horrekin batera, elkarrizketa erdiegituratuak egin genizkien zenbait ekoizle agroekologikori eta trantsizioan zeuden zenbait ekoizleri, ekoizleen erakundeetako buruei eta eta gizarte zibileko ordezkari. Horien bitartez, elikadura burujabetzaren aldeko agroekologian oinarritutako ESAei buruzko iritziak, esperientziak eta erronkak ezagutu nahi genituen.

Ekoizle agroekologikoekin eta kontsumitzaileekin lan egin genuen, elikadura-sistema alternatiboen eskalagarritasuna oztopatzen duten korapilo kiritikoak identifikatzeko.

Pichincha, Cotopaxi eta Imbabura probintzietako azoka agroekologikoak eta denda alternatiboak mapatzeko lan labur baten bitartez, toki horietako hainbat eragile eta sustatzaile identifikatu genituen. Horien artean ditugu tokiko gobernuak -prefekturak zein udalak-, unibertsitate publikoak, ikastetxe pribatuak, gizarte zibileko erakundeak eta elkarteak, eta negozio-ekimen pribatuak.

3. Eskala-jauzia elikadura sistema alternatiboetan

Ikerketa honetan Elikadura Sistemak aztertzeke esparru teorikoa agroekologian eta Elikadura Burujabetzan oinarritzen da, baita Ekonomia Sozial eta Eraldatzailean ere. Alde batetik, agroekologiak iraunkortasunaren ekonomia, ingurumen eta gizarte dimentsioak integratzeko ahalmena du; izan ere, pertsonen, lehen sektorearen eta naturaren arteko harreman positiboak maximizatzen ditu, eta ekoizleen autonomia handitzen du. Beste alde batetik, Elikadura Burujabetzak beren ekoizpen eta elikadura sistemei buruz erabakitzeke eskubidea aitortzen die Herriei [16].

Bere aldetik, Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileak pertsonak erdigunean kokatzen ditu eta kapitala baliabide gisa ikusten du, eta ez alderantziz. Hala, ekonomia modu demokratikoan eta berdintasunez antolatzen du, eta ez bertikalki eta hierarkikoki. Pertsonak ahalduntzen ditu, parte-hartzea eta prozesu kolektiboak sustatzen ditu, eta demokrazia ekonomikoko eredu batean sakontzen du. Ondasunek eta zerbitzuek pertsonen beharrak asetzeko helburua dute, ez ahalik eta irabazirik handienak lortzeko helburua.

Gure elikadura-sistemen ahultasun hori agerian geratu zen COVID-19aren pandemian zehar, eta gauzak birpentsatzeko beharra zegoela ikusi zen, sistema erresilienteak garatzen ditugula bermatzeko. Horrek, bada, elikadura sistema lurraldetuen garrantzia nabarmentzen du [17].

Elikadura sistema lurraldetuetako funtsezko eragileen artean aurkitzen ditugu tokiko Elikadura Sare Alternatiboetan (ESA) antolatzen diren Kontsumo Kooperatibak eta Taldeak (KKT). ESAek elikadura sistema konbentzionalaren aurrean alternatibak sortzeko lan egiten duten ekoizleak, kontsumitzaileak eta beste eragile batzuk biltzen dituzte [10; 18]. Ekonomia Sozial eta Eraldatzailean oinarrituta, ESAak funtsezko bitartekari bilakatu dira trantsizio agroekologikorako bidean², eta katearen maila guztietan, ekoizpenetik kontsumora [10]. Esperientzia horietako batzuk Merkaturatze Kanal Laburretan (MKL) gauzatu dira, hala nola kontsumo saskietan edo tokiko ekoizle agroekologikoen azoketan [19]. ESAek aukera bat izan nahi dute supermerkatuetan eta elikagaien kate luzeetan oinarritutako ohiko ereduaren aurrean [20]. Beraz, KKTen eginkizuna ESAen barruan, ez da elikagai-denda izatera mugatzen; aitzitik, elikadura sisteman eragin nahi dute, eta funtsezkoak dira tokiko lehen sektorea sustatzeko eta indartzeko.

Urbanizazio-prozesu globalaren ondorioz, kontsumoa hirietan kontzentratzen da gero eta gehiago, eta hortaz, ESAek, batetik, eta agronegozioaren eta banaketa handiaren ereduak, bestetik, hirietan ezartzeko borrokatzen dira. Izan ere, bigarren hura oso eraginkorra izan da biztanle kontzentrazio handiko hiriak hornitzeari dagokionez, baina hainbat kanpo-efektu eragiten ditu eta ez ditu bere gain hartzen. Hala, kontsumitzaileek funtsezko eginkizuna dute elikagaiak eskuratzeko modu berriak sortzeko, eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko merkataritza-eremuak berreskuratzeko, hala nola herri-merkatuak eta azoka agroekologikoak.

Ekoizpen eta kontsumo harreman horiek berregiteko prozesuan, kontsumitzaileek elikaduraren arloko prestakuntzaren beharra izan dezakete, merkaturatze-eremu alternatibo horiek eraikitzearekin batera. Are gehiago, zenbait kasutan, kontsumitzaileak beren elikagaien zati baten ekoizle ere bilakatu dira, hiri-nekazaritzako ekimenen bitartez. Ekimen horien artean ditugu, adibidez, Valentziako “Huerta del Sur” edo Madrilgo “Bajo el Asfalto está la Huerta” [21]. Horrelako ekimenak kontsumitzaileengandik sortzen dira; hiriko edo hiri inguruko eremua berreskuratzeko, eta tokiko nekazarien ekoizpenaren osagarri diren elikagaiak ekoizteko. Kontsumitzaileen artikulazioa txikia da oraindik banaketa handiaren aurrean, baina handitzen ari da, agronegozioak ingurumenean eta elikagai prozesatuek osasunean dituzten inpaktuen ondorioz. Hala, hirietan, gero eta gizarte mugimendu gehiagok aldarrikatzen dituzte, besteak beste, bidezko elikadura eta

2 Agroekologia printzipio ekologikoak maneiatzea eta nekazaritzako ekosistemei aplikatzea da, lurzorua eta landareen ahalmena handituz eta izurriteak murriztuz (Altieri, 2009). Halaber, nekazaritzako ekosistema osasungarria sortzeko zientzia eta praktika multzoa da (Altieri & Toledo, 2011).

merkataritza, elikagai organikoak eskuratzeko aukera, eta *slow food* edo janari geldoa [22]. Mugimendu horiek harreman zuzena hobesten dute kontsumitzaileen eta ekoizleen artean.

Sanzen eta beste batzuen esanetan [23], banaketa handiaren hegemoniak beherantz bultzatzen ditu prezioak eta elikadura-katearen maila guztietako marjinak, eta, hortaz, ESAei ere eragiten die. Ondorioz, “elikagaien sektoreak bere estrategiak moldatu behar ditu, eskalako eta irismeneko ekonomiak lortu nahi dituzten elikadura-erreferentzia nahikoak emateko, eta, hala, prezioak bidezkoak direla eta denda bakarrean saskia betetzeko moduko produktu-eskaintza dagoela bermatzeko” (*Ibidem*, 3).

Zentzu horretan, salmenta-guneetarako sarbidea eta kontsumo-prezioak dira ESAetako kontsumitzaileen kopurua handitzeko oztopo nagusia. Beraz, ezinbestekoa da merkaturatze alternatiboaren “eskala-jauzi” (*scaling up*) hori lortzeko estrategiak sustatzea, hain zuzen ere, kostu operatiboak (logistika eta merkaturatzea, batez ere) murrizteko eta ekoizleak eta kontsumitzaileak salmenta-guneetara heltzen direla bermatzeko. Jakina, estrategia horiek ikuspegi kooperatibo batean oinarritu behar dira, ESAREN osagai guztien artean berdintasunezko eta konfiantzazko harremanak ezartzeko. Hala, supermerkatu kooperatiboak eta HUak (edo bilketa zentroak) bezalako esperientziak ahalmen handiko tresnak dira eskala-jauzi hori egiteko. Gipuzkoan, azken urteotan hainbat eskualdetan sortutako KKTak supermerkatu kooperatiboen hastapeneko egitura hartzen ari dira, Iruñeko Landare³ ekimenaren eredu arrakastatsuari jarraituz. Gaur egun, zazpi dira horrelako elkarteak Gipuzkoan.

Gaur egun, ez dago bilketa-zentrorik edo HUrik Gipuzkoan, baina bai inguruko bi lurraldetan (Ekoalde Nafarroan eta Iparlab Iparraldean). Horiek, gainera, Gipuzkoako KKTak hornitzen dituzte. Ekoizleek sortutako ekimenak dira, zerbitzu integrala emateko helburuz. Beraz, HU horiek ekoizleen beharrak betetzeko sortu ziren, eta sukaldaritza kolektibora iristeko. Baina KKTek ere ekimen horiek babesten dituzte; izan ere, haien ustez garrantzitsua da ekoizleen arteko koordinazioa sustatzea. KKTek tokiko elikagai agroekologiko asko saltzen dituzte, eta, hortaz, inguruan baldintza horiek betetzen dituzten ustiategiak identifikatzea lehentasunezkoa da haientzat, eskaintza antolatu ahal izateko. HU horiek funtsezko tresna dira denboran eskaintza nahikoa eta egonkorra antolatu ahal izateko.

3 Landare irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta bi denda kooperatibo kudeatzen ditu Iruñean (Rotxapea auzoan eta Atarrabian), bazkideei produktu ekologikoak saltzeko. Elkarte 1992an sortu zuten, eta, gaur egun, bi denda, 20 langile eta 3.000 bazkide baino gehiago ditu. Estatuko supermerkatu kooperatiborik handiena da.

Ekuadorren kasuan, elikadura sistema alternatiboak eta merkatu agroekologikoak Elikadura Burujabetzako Erregimenaren parte dira, Ekuadorreko Konstituzioaren 281. artikuluan eta Elikadura Burujabetzako Erregimenaren Lege Organikoan (LORSA) jaso bezala. Merkatu horiek ekoizpen agroekologikoaren hazkunderako ahalmena izan dezakete, merkaturatze-kanal laburrak garatzeko aukera ematen baitiote eskala txikiko ekoizleari, alde batetik, haren diru sarrerak handitzeko, eta, bestetik, kontsumitzaileei elikagai osasungarriagoak eta garbiagoak helarazteko.

Beste alde batetik, Ekuadorren kasuan, merkatu agroekologikoek goranzko joera dute hiri eremuetan, eta, pixkanaka, aldaketak eragiten ari dira kontsumitzaileengan, hain zuzen, ekoizpen baserritarra eta produktu agroekologikoak baloratzeari dagokionez. Produktu agroekologikoak ESAen eta zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko eremu horiek, bada, artikulazioak sor ditzakete elikagaien jatorriaz kezkatzen diren pertsonen artean. Hala, harreman horiek elikagaiak eskuratzeko modu berriak ekar ditzakete, kontsumo arduratsuago batean oinarrituta [24].


Ekuadorreko kasuan, ESAen eta zirkuitu laburren adibiderik ezagunena “saski komunitarioak” dira. Horiek, zenbait kasutan, produktuen prezioa murriztea lortu dute, eta teknika agroekologikoekin lan egiten duten nekazariekin harreman zuzenagoak ezartzeko aukera eman dute [25]. Harreman zuzen horiei esker, nekazari txikien produktuak hirietan merkaturatzeko eremuak sortu ahal izan dituzte. Gainera, kontsumitzaileen eta ekoizleen artean salmenta zuzeneko sareak sortzeko politika publikoak sortu dira, Elikadura Burujabetzaren alde⁴.

4 Zenbait kasutan, kontsumitzaileek tokiko gobernuetan eragin dute, hirietan azoka agroekologikoak ahalbidetzeko eta hiri-baratzeak bultzatzeko ordenantzak egin ditzaten.



II. Atala

Gipuzkoako KKT-en karakterizazioa eta hornikuntza unitateen problematika



1. KKT-en eta HU-en ezaugarriak

Eskala-jauziaren erronkan aurrera egiteari dagokionez, Gipuzkoako KKTek aurkitzen duten zailtasun nagusietako bat da gertuko produktu fresko edo agroekologikoen hornidura urria dela eta ez dela egonkorra. Muga horren aurrean, inguruko zonaldeetan (hala nola Nafarroan edo Iparraldean) printzipio berdinekin lan egiten duten beste hornikuntza-unitate edo bilketa-zentro batzuk bilatu dituzte.

Ikerketa honetan hamar KKTk parte hartu dute: Gipuzkoako Lurralde Historikoko zazpi, Nafarroako bi eta Iparraldeko bat. Hornikuntza eta logistika aukerek KKTen eskaintza handitzeko bete behar dituzten baldintzak identifikatzea izan da helburua. Horretarako, mugaz gaindiko hornikuntza-unitate bat sortzeko baldintzak aztertu ditugu, Gipuzkoako eta Nafarroako iparraldeko KKTak Iparraldeko ekoizleen produktuekin hornitzeko. Hala, eragileekin hausnarketa kolektibo bat egin dugu, ESAen arteko lankidetzan oinarritutako mugaz gaindiko logistika hura garatzeko bete behar diren baldintzak identifikatzeko helburuz.

Hasiera batean, ikerketak Gipuzkoa besterik ez zuen hartzen, baina gero beharrezkoa ikusi dugu inguruko lurraldeetako beste hiru esperientzia sartzea. Lehenik, beren garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboagatik. Horixe da, hain zuzen, Landare ekimenaren kasua, izan ere, hura Estatuko supermerkatu kooperatibo handienetako bat da, eta ekimen aitzindaria ESAen arloan. Bigarrenik, beren gertutasun geografikoagatik. Hori da Bidazi eta Hurbil ekimenen kasua; izan ere, Nafarroan eta Iparraldean kokatzen badira ere, Gipuzkoako mugatik oso gertu daude biak. Azkenik, Gipuzkoako KKTekin batera, HU baten bideragarritasuna bermatzeko moduko eskaria eragin dezaketen sinergiak eta eskala-ekonomiak sor ditzaketelako.

KKT horiek guztiek ezaugarri komunak dituzte elikadura sare alternatibo gisa duten ikuspegiari dagokionez. Hain zuzen ere, kontsumitzaileek eta ekoizleek bultzatutako ekimenak dira (eta zenbait kasutan, udalek ere parte hartzen dute). Hala, tokiko produktu ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak lehenesten dituzte, eta hornikuntza kateetan artekariak murriztu nahi dituzte. Gainera, zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola dendak kudeatzea, elikagaiak prestatzea, catering zerbitzuak eta tokiko proiektuak dinamizatzea. KKT batzuek, gainera, sentsibilizazio eta prestakuntza ekimenak sustatzen dituzte, eta elikadura hezkuntzarekin eta iraunkortasunarekin konprometituta daude.

Gipuzkoan, LAKARI (Zarautz), ELIKAGUNEA (Azpeitia) eta ELIKAENEA (Bergara) bezalako kooperatibek irizpide zorrotzak dituzte produktuak tokikoak eta gertukoak izateko (esate baterako, 150 kilometroko erradiokoak izatea), baita kalitateko eta ekoizpen iraunkorreko estandarrak ere. Nafarroan, LANDAREK

(Iruñea, Atarrabia) elikagai ekologikoak lehenesten ditu, eta BIDAIZik (Bera) eta beste kooperatiba batzuek, aldiz, gertuko produktuak. Beste alde batetik, Iparraldean, HURBIL ekimenak (Senpere) tokiko ekoizpena eta artisau-erlaketak uztartzen ditu. Sare horiek ekonomia kolaboratiboko eta elikadura iraunkortasuneko eredu sendoak osatzen dituzte. KKTen ezaugarri nagusiak ondoko taulan laburbiltzen ditugu.

1. Taula. Kontsumo kooperatibak eta elkarteak

Kooperatiba/Sozietatea	Zerbitzuak	Irizpide nagusiak
LAKARI kooperatiba Sustatzailea Norbanakoak Kokapena Zarautz Sortu zen urtea 2015 Langile kopurua 6	- Denda. - Elikagai prestatuak eta catering zerbitzuak. - Aholkularitza eta prestakuntza.	- Euskal jatorriko lehengaien artean, ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Kanpoko produktua ekologikoa izan behar da. - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
ELIKAGUNEA kooperatiba Sustatzailea Udala Kokapena Azpeitia Sortu zen urtea 2018 Langile kopurua 9	- Denda. - Elikagai prestatuak eta catering zerbitzuak. - Sentsibilizazio ekimenak, hala nola sukaldaritza ikastaroak. - Jantoki kolektiboei banatzea.	- Elikagaiak 150 kilometroko erradioan ekoizten eta eraldatzen dira. - Lehengaiak euskal jatorrikoak izan behar dira (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Euskal Herrian hazitako abereen produktuak. - Eraldatueta, lehengaien % 50 gutxienez Euskal Herrikoa izan behar da.
ELIKAENEA 2018an sortutako Ereindajan EDJ ekimenaren ondorengoa Sustatzailea Udala EDJ kooperatibak kudeatuta Kokapena Bergara Sortu zen urtea 2024 Langile kopurua 6	- Denda. - Elikagai prestatuak eta catering zerbitzuak. - Sentsibilizazio ekimenak. - Tokiko proiektuen dinamizazioa. - Jantoki kolektiboei banatzea. - Elikaduraren Tokiko Mahaian parte hartzea.	- Euskal jatorriko lehengaien artean, ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Kanpoko produktua ekologikoa izan behar da. - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
EREINDAJAN Arrasate elkarte Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Arrasate Sortu zen urtea 2015 Langile kopurua 3	- Denda.	- Euskal jatorriko lehengaien artean, ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Kanpoko produktua ekologikoa izan behar da. - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.

Cooperativa/ Sociedad	Zerbitzuak	Irizpide nagusiak
BIZIOLA kooperatiba Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Lazkao Sortu zen urtea 2023 Langile kopurua 2	- Denda. - Tokiko proiektuen dinamizazioa. - Sentsibilizazio eta komunikazio jarduerak.	- Goierriko elikagaien artean, ekologikoa/agroekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Kanpoko produktua ekologikoa izan behar da. - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
LABORE Txingudi elkarte Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Irun Sortu zen urtea 2016 Langile kopurua 3	- Denda.	- Euskal jatorriko lehengaien artean, ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Kanpoko produktua ekologikoa izan behar da. - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
LABORE Oarso elkarte Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Oiartzun Sortu zen urtea 2016 Langile kopurua 6	- Denda. - Tokiko proiektuen dinamizazioa. - Jantoki kolektiboei banatzea.	- Tokiko produktua. - Produktu ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
BIDAZI elkarte Kokapena Bera Sortu zen urtea 2013 Langile kopurua 2	- Denda.	- Tokiko produktua. - Produktu ekologikoa lehenesten da (Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak). - Artekariak ahalik eta gehien murriztea.
LANDARE elkarte Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Iruñean Sortu zen urtea 1992 Langile kopurua 18	- Denda.	- Elikagai guztiak ekologikoak dira. - Gertuko produktuak. - Bidezko merkataritza.
HURBIL ekoizle elkarte Sustatzailea Kontsumitzaileak Kokapena Senpere Sortu zen urtea 2016 Langile kopurua 1	- Denda. - Lantegia/eraldaketa zentroa.	- Kalitateko eta ekoizpen moduetako ziurtagiriak.

Iturria: Egileak.

Beste alde batetik, hornikuntza unitateak Ekoalde (Nafarroa) eta Iparlab Distribution (Iparralde) dira (ikus 2. taula). Biek dute banaketa-kate laburrak sustatzeko eta tokiko ekoizleak babesteko misioa, eta biak dira irabazi asmorik gabeko elkarteak. Hala ere, desberdintasun nabarmenak dituzte ikuspegiei eta operatzeko moduei dagokienez.

Ekoaldek 65 erakunde bazkide ditu, Nafarroako Gobernuaren eta CPAENren babesarekin eta INTIA eta Ekologikoak bezalako tokiko erakundeekin kolaboratzaile. Bere katalogoan produktu ekologikoak besterik ez daude, eta HORECA kanaleraren zaindaria den txikizkako merkataritzara eta kontsumo taldeetara bideratzen da, asteko eskaeretan oinarritutako logistika baten bitartez.

Bestetik, Iparlabek Ipar Euskal Herriko 39 ekoizlerekin lan egiten du, eta hainbat kalitate-ziurtagiri ditu (AB, Idoki, AOP). Bere ereduak ikuspegi profesionalizatuagoa sustatzen du. Hala jatetxeekin eta jantoki kolektiboekin bakarrik lan egiten du, eskaerak malguagoak dira (48 orduko aurrerapenarekin) eta banaketa maizago egiten dute (astean bitan).

Ekimen biek tokiko nekazaritza eta elikadura sektorea indartzen dute, baina Ekoaldek orientazio multisektoriala eta ekologikoa du eta Iparlab zerbitzuaren profesionaltasunean eta ziurtagirien aniztasunean zentratzen da.

2. Taula. Hornikuntza Unitateen ezaugarri nagusiak

Hornikuntza unitateen ezaugarri nagusiak	EKOALDE	Iparlab Distribution
Helburuak	- Ekoizleei merkaturatze zerbitzu integrala eskaintzea. - Banaketa-bide laburrak sortzea eta sustatzea sektorearen jardueraren indartzeko. - Banaketa katalogo bateratu batean antolatzea, eta zerbitzu komertziala eta logistikoa eskaintzea.	- Nekazariei salmenta erraztea, logistika, banaketa eta fakturazioaren bitartez. - KKTetako ekoizleen eta bezero profesionalen artean harremanak sortzea. - Kalitatezko produktu dibertsifikatua eskaintzea (BIO, marka propioak). - Eskaerak ekoizleei zuzenean egiteko aukera ematea bezeroei, online katalogo baten bitartez.

Hornikuntza unitateen ezaugarri nagusiak	EKOALDE	Iparlab Distribution
Forma juridikoa	- Nafarroako ekoizle eta eraldatzaile ekologikoek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarte.	- Iparaldeko nekazarien produktuen plataforma, hau ere irabazi asmorik gabekoa.
Bazkideak	- 665 erakunde bazkide	- 39 ekoizle
Laguntzaileak	Babesleak: Nafarroako Gobernua eta CPAEN. Kolaboratzaileak: Aenavarra, Intia, Ekologikoak, Fundación Carasso.	Babesleak: EHEE, BLE, EHKO, EHLG, Garro, Buru Beltza. Kolaboratzaileak: Hirigune Elkargoa, La Région Nouvelle-Aquitaine.
Produktuak	Eskaintzen dituen produktu guztiak ekologikoak dira.	Produktuen trazabilitatea bermatuta dago eta kalitate ziurtagiriak ditu: AB (% 80), Idoki (% 25), AOP, Arto Gorria, Pirenaika...
Bezeroak	HORECA kanala; jantoki kolektiboak; txikizkako dendak; kontsumo taldeak.	Profesionalak bakarrik: jantoki kolektiboak eta jatetxeak.
Eskaerak egiteko protokoloa	Astebeteko aurrerapenarekin. Banaketa astean behin.	Bi eguneko aurrerapenarekin. Banaketa astean bitan.

Iturria: Egileak.

Sarreran aipatu dugun bezala, HUetako arduradun teknikoei elkarriketa erdiegituratuak egin dizkiegu, eta, horien bitartez, egitura horien indargune eta ahulezia nagusiak identifikatu ahal izan ditugu. Geroago, inkesten bitartez, KKTen ekarpenak jaso ditugu, eta mugaz gaindiko HUaren bideragarritasunari buruzko aurrediagnostiko bat osatu dugu. Azkenik, talde fokal bat eratu dugu KKTetako ordezkariekin, funtsezko elementuak identifikatzeko. Jarraian, lortutako emaitza nagusiak azalduko ditugu.

Ekoalde eta Iparlab ekimenetako teknikariei egindako elkarriketak antzekotasunak eta desberdintasunak dituzte mugei, aukerei, indarguneei eta oztopoei dagokienez. Unitate biek erronka ekonomikoak dituzte (esate baterako, kanpoko diru-laguntzak

behar dituzte bideragarri izateko), baita zailtasun logistikoak ere. Batetik, Ekoaldek ez du hozte-sistema egokirik, eta, Iparlabek, bestetik, ez du biltegi zentralizaturik. Iparlaben prezio-marjinak lehiakortasuna zailtzen dute, batez ere txikizkako kanalean. HU bien arteko desberdintasun nagusia eskaeren kudeaketaren barne antolakuntza da.

Aukeren artean, nabarmentzekoak dira lizitazio publikoetan parte hartzeko eta merkatuak zabaltzeko aukerak. Ekoaldek bere misioa nola indartu hausnartzen du, eta Iparlabek aintzatespena eta ekoizle berriak lortzen ditu. Biek dute gobernantza-eredu horizontala. Horretan, ekoizleek funtsezko eginkizuna dute erabaki nagusietan.

Oztopoen artean, enpresa handiek lizitazioetan duten abantaila dugu, baita ordainketa-kudeaketako arazoak ere (Ekoaldek 90 eguneko atzerapenak ere izaten ditu catering enpresen kasuan). Hala ere, aurrera egiten dute biek, logistika optimizatzeke eta tokian duten eragina handitzeko estrategien bitartez. Jasotako informazioa ondoko taula honetan bildu dugu.

3. Taula. HUetako arduradunei egindako elkarrizketen emaitzak	
EKOALDE	IPARLAB Distribution
Hornikuntza Unitatearen jardueraren mugak	
- Eskaeren kudeaketa. Eskaerak astebeteko aurrerapenarekin egin behar dira. - Fruta mantentzeko biltegiratze hozturik ez izatea. Gaur egun Nafarroan ez dago modu ekologikoan biltegiratzeko moduko hozte-sistematik, eta Ekoaldek Errioxako kooperatiba baten zerbitzuak erabili behar ditu. - Bideragarritasun ekonomikoa izateko, kanpoko diru-laguntzak behar dituzte.	- Iparlabek ez du biltegi zentralizaturik Iparraldeko nekazarien produktuak jasotzeko eta eskaerak kudeatzeko. - Iparlabek ezarritako margenak (% 20-25) elikagaien prezioa handitzen dute, batez ere azken kontsumitzailearengana heltzen ez diren kasuetan (elikagaien dendak). - Erosketa publikorako aurrekontuak baxuak izaten dira. - Bideragarritasun ekonomikoa izateko, kanpoko diru-laguntzak behar izaten dituzte.

Oportunidades de la actividad de la Unidad de Suministro	
Jantoki kolektiboetako sukaldariei prestakuntza eskaintzea: ekologikora igarotzeko ezagutzak eta motibazioa lantzea. Orain barne elkarrizketetan daude. Ekoalderen misioari, ikuspegiari eta baloreei buruz hausnartzen ari dira, etorkizunera begira. Ekoalde finkatuta dago eta orain beste urrats batzuk eman beharra dago: nola indartu lehen sektorea, nola egituratu Ekoaldetik egin beharreko lan politikoa. Ekoalderen furgoneta astero doa iparraldera, eta hutsik itzultzen da.	- Lizitazio gehiagotan parte hartzea. EGALIM legeak ezartzen du produktuen % 20 ekologikoak izan behar direla, eta % 20 tokikoak. - Iparlab gero eta ezagunagoa da, eta gero eta nekazari gehiagok parte hartzen dute. - Haragi-salmenta handitzea. - Bezero gehiago eta beste mota batzuetakoak lortzea, hain zuzen ere, urte osoan zehar eskatzen dutenak. Ez dute baztertzen Hegoaldeko merkatura sartzea.
Hornikuntza Unitatearen jardueraren gakoak	
- Ibilbide efizienteak sortzea. - Eskaren kudeaketa efizientea. - Gobernantza-eredu horizontala dute, eta, horretan, ekoizleek erabakitzen dituzte, prezioak, ekoizpen irizpideak, urteko plangintza, eta abar.	- Ibilbide efizienteak sortzea - Kalitatezko produktuak eskaintzea. - Gobernantza-eredu horizontala dute, eta, horretan, ekoizleek erabakitzen dituzte, prezioak, ekoizpen irizpideak, urteko plangintza, eta abar.
Hornikuntza Unitatearen jardueraren oztopoak	
- Ezin dute banaketa egun batetik bestera egin. Dendek, ordea, azkartasun hori eskatzen dute; eta, hortaz, Gumendi enpresara jotzen dute. - Catering enpresek 90 egunera ordaintzen dute, eta horrek Ekoaldearen kontuak arriskuan jartzen ditu.	- Logistika zaila da eta gastu handia eskatzen du. - Lizitazioetan catering enpresa handiekin lehiatzen dira.

Iturria: Egileak.


2. Kontsumo kooperatiben eta taldeen eskakizunak

Bederatzi KKTren erantzunak jaso genituen (Gipuzkoako 7 eta Nafarroako 2). Hainbat tamainatako proiektuak dira, eta langileen kopurua 2tik 15era bitartekoa da (ikus 1. irudia). Horietatik, erdiak baino gehiagok harreman ekonomikoren bat izan dute Iparraldearekin (ikus. 2. irudia). Interakzio eskas horren arrazoiaren artean, honako hauek ditugu.

- Alde batetik, produktuak eskuratzeko arazoak identifikatu ditugu: zenbait kasutan ekoizleek berek ekarri behar izan dituzte Hegoaldera; edo, alderantziz, KKTak Iparraldera joan behar izan dira horien bila. Hori ez da jasagarria.


- Beste alde batetik, muga psikologikoa aipatu dute. Horrek, Iparraldeko ekoizleekin harremanak ezartzea oztopatzen du.

1. Irudia. Kontsumo Kooperatiba eta Elkarte parte-hartzaileetan enplegatutako pertsona kopurua



Iturria: Egileak.


2. Irudia. Iparraldearen eta Hegoaldearen artean harremanak izan dituzten Kontsumo Kooperatiba eta Elkarten ehunekoa



Iturria: Egileak.

Iparraldetik gehien ekarri nahi dituzten produktuak zeintzuk diren galdetuta KKTek fruta jarri dute lehen postuan, haren azetrik kontserbak, eta gero barazkiak (ikus 3. irudia). Aipatutako produktuen artean ditugu fruta (gereziak, mizpirak, madariak, sagarrak, meloiak...), lekaleak eta esnekiak (artisau-gaztak). Halaber, haragi-produktu eraldatuak ere aipatu dituzte, hala nola ahatekiak (patea, izterrak kontserban...), edo ekilore-olioa. Halaber, gaur egun artekarien bitartez kanpotik ekartzen dituzten produktuak Iparraldetik ekartzeko aukera aipatu dute.


3. Irudia. Interes gehien pizten duten Iparraldeko produktuak



Iturria: Egileak.

Irizpideei dagokienez, KKT guztiek harreman zuzena bilatzen dute ekoizlearekin. Erdiak nekazaritza ekologikoa bilatzen du eta bi herenek produktuak Iparraldekoak edo Iparraldeko lehengaiez eginak izatea eskatzen dute (ikus 4. irudia).


4. Irudia. Iparraldetik ekarritako elikagaiek bete beharreko irizpideak



Iturria: Egileak.


Galdetegian, HUEkin izandako esperientziei eta zailtasunei buruz galdetu genien, baita, KKT bat behar bezala hornitzeko, HUen zerbitzuek bete behar dituzten

baldintzei buruz ere (ikus 5. eta 6. irudiak). Besteak beste, elikagaien kalitatea, dendara heltzean, kontuan hartu beharreko kontu bat da; izan ere, KKT gehienek zailtasunak izan dituzte zentzu horretan. Kostua ere arazo bat da, eta banaketaren maiztasuna handitu beharko litzateke.



Iturria: Egileak.

6. Irudia. KKT bat behaz bezala hornitzeko, HUen zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak



Iturria: Egileak.

Talde fokalaren emaitzei dagokienez, honako taula hauetan jaso ditugu KKTei identifikatzen dituzten kontuan hartu beharreko funtsezko baldintzak HU bat abian jartzeko.

A) Logistika

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Banaketarako biltegia</i>	Iparraldeko Kontsumo Kooperatibek mugatik gertu dituzten biltegiak Hegoaldera bidaliko diren produktuak jasotzeko lehen puntua izan daitezke. Barrualdeko ekoizleak Iparraldeko kostaldera doazenean, mugatik gertu dagoen KKT batean uzten duten beren produktua. Biltegi fisiko bat ekoizle bakoitzaren urteko aurreikuspenen bitartez antola daiteke (gero bakoitzak bere beharren arabera eskatzen badu ere). Zenbait KKTk biltegia behar dute, izan ere, hura beharrezkoa ikusten dute eskaerak kudeatzeko. Merkaturatze erraza: produktuak hurbileko banaketa-gune batera ekartzea, edo ustiategira norbait bidaltzea horiek jasotzera..
<i>Eskaeren maiztasuna</i>	Kontserben kasuan, eskaerak, hasiera batean, bi asterik behin egin daitezke, eta katalogoa handitzen den heinean, astean behineko maiztasunez egin ahal izango dira. Produktu freskoak astean behin gutxienez banatzen dira, nolabaiteko erregularutasuna mantentzeko. Produktu eraldatuen eta kontserben kasuan, asteroko edo bi astean behineko banaketa nahikoa izan daiteke. Produktu freskoen kasuan, astean behineko banaketa agian ez da nahikoa izango, freskotasanari eta biltegiratzeko espazioari lotutako kontuen ondorioz.
<i>Banaketa ibilbideak probatzeko aukerak</i>	Garraioa hainbat modutara egin daiteke: garraiorik txikiena hainbat egunetan inguruko tokietara, edo garraio handiagoa egun bakarrean zonalde guztietara. Onuragarria izan daiteke Ekoaldeko kamioi hutsak Hegoaldeko kooperatibei banatzeko erabiltzea, banaketa puntutik. Bi noranzkoko sistema bat izatea: Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Iparralde, Hegoaldeko ekoizleen eskutik lortzen ez ditugun produktuak ekartzeko. Hasieran, artekariak saihesteko hurbiltzen ginen Iparraldera, baina ez da bideragarria (denbora, kostuak...). Banaketa dendaraino egitea beharrezkoa izan daiteke; izan ere, denboran iraungo badu, ahalik eta erosoena izan behar da. Produktua dendaraino eramango duen banaketa sistema izatea (gaur egun Iparraldearekin dagoen zailtasuna nagusia da).

Temas clave	Azalpenak
<i>Eskaerak egiteko epeak</i>	Zenbait KKTk aipatu dute eskaera astebeteko aurrerapenarekin egiteko arazorik ez dutela. Eskaerak astebeteko aurrerapenarekin egitea ez da arazoa kontserbei edo iraupen luzeko produktuei buruz ari bagara, baina zailagoa da produktu freskoekin.
<i>Eskaera antolatua</i>	Ekoizlearen arabera, komeni da eskaera antolatuta izatea; nekazari bakoitzak bere eskaera izango luke.

B) Lankidetzarako baldintzak

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Elkar ezagutzea</i>	Ekoizleekiko harremana bermatzea, elkarren beharrak ezagutzea eta harremanak lantzea. Funtsezkoa da ekoizleak ezagutzea, beren baldintzak eta lan egiteko moduak hobeto ulertzeko, eta elkar aditzeko. Ekoizlea: Erreferente bat Iparraldean eta beste bat Hegoaldean, harremanak sinplifikatzeko.
<i>Errealitate desberdinak kontuan izatea</i>	Kooperatiba bakoitzak bere autonomia izatea. Funtsezkoa da bakoitzaren erritmoa, beharrak eta gaitasunak errespetatzea.

C) Bideragarritasun ekonomikoa

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Negozio ereduak</i>	Hori posible izateko, hasi beharko gara bi langilerekin, biltegi eta garraio txiki batekin, intsumoak kontuan hartuta (martxan jartzeko gutxienekoak), eta behar dugun eskaera-bolumena balioztatu beharko dugu. Epe ertainerako (3-5 urte) bideragarritasun plan bat egitea, behar dugun gutxieneko eskaera-bolumena kalkulatzeko. Agian, hasiera batean, diru-laguntza handiren bat lortu beharko dugu proiektua lehen 2-3 urteetan garatu ahal izateko. Ezer baino lehen, Iparraldeko ekoizleen eskaintza ezagutu beharko dugu; izan ere, horren arabera, jakingo dugu zer ekar dezakegun eta bideragarria den ala ez.

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Prezioak eta kostuak</i>	Zehaztu beharko genuko nola fakturatuko diegu Iparraldeko ekoizleei: baserri bakoitzak kooperatiba bakoitzari fakturatuko dio ala biltegiaren bitartez bideratuko da? Baina elikagaien prezioetan gainkostuak aplikatzea saihestu behar dugu; izan ere, Iparraldeko produktuak garestiagoak dira berez, baina Hegoaldean ez ditugu soldata berdinak. Iparraldeko prezioak aldeztu aurretik ezagutzea, eta lurralde bakoitzeko errealitate sozioekonomikoak kontuan hartzea. Ekoizlea: nekazariak bere prezioan saldu behar du. Gainontzeko kostuak (garraioa) marjina gisa gehituko dira. Logistika kontuak betetzeko, ikusi beharko dugu nola hartu bakoitzak zati bat –egiten duen erabileraren arabera–, eta nola banatu kostu horiek. Logistika gastuak betetzea eta, jakina, irabazi asmorik ez dagoela bermatzea.
<i>Kalitatea</i>	Produktu freskoen kasuan, freskura bermatu beharra dago; dagoeneko, esperientzia negatiboak izan ditugu eta. Produktuen kalitate irizpideak. Jasotzen dena saltzeko moduan dagoela bermatzea.

D) Konpromisoa

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Baliabide pertsonalak</i>	Etapan honetan, ezin ditugu baliabide pertsonalak modu jasangarrian eman (lan gehiegi dugu eta). Beharrezkoa da aldeztu aurretik konpromiso mailak zehaztea, eta erakunde bakoitzak bere erabakia har dezan ahalbidetzea. Funtsezkoa da bakoitzak zenbait konpromiso hartzea, bere proiektuaren egoeraren edo baldintzen arabera. Ekoizlea: Agian aurrerago BLE edo APFPB elkarteekin lan egin dezakegu (nekazariak ez dugu horretaz arduratzeko denbora nahikorik, eta, gainera, elkarte horiekin lan eginez, eskaintza zabal dezakegu.
<i>Gutxieneko eskaerak egiteko konpromisoa</i>	Elkarte eta kooperatiba bakoitzak jarduteko modu bat du. Gutxieneko konpromiso bat izan daiteke urtean gutxienez eskaera bat egitea, eta urteko bazkide kuota ordaintzea, gure bolumenaren edo ahalmenaren arabera (maila batzuk ezarritik). Eskaerei dagokienez, interesgarria izan daiteke kontserben gutxieneko eskaera bat ezartzea; ez agian produktu bakoitzeko, baizik eta orokorrean (batez ere biltegiatzeko arazoak dituzten horien kasuan). Guztion artean, gutxieneko eskaerak adostu beharko ditugu (proiektu bakoitzera egokituta, jakina).

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Eskaintza konpromisoak</i>	Ekoizlea: Hobe hasieran konpromisorik gabe hastea, bakoitzak ikusi ahal izateko zer produktu saltzen diren eta zer neurritan. Ekoizlea: Bigarren fase batean, salmentak planifikatzea, gutxi gorabehera zer, zenbat eta zein maiztasunekin. Aldez aurretik, Hegoaldean saltzeko prest dauden Iparraldeko hainbat ekoizle identifikatzea, eta horien ekoizpen-ahalmena balioztatzea. Iparraldeko ekoizle indibidualak zein kolektiboak identifikatu behar ditugu, hain zuzen ere, proiektuan parte hartzeko prest daudenak, eta katalogo moduko bat egingo dugu.

E) Beharrezko baliabideak

Gai nagusiak	Azalpenak
<i>Baliabide materialak</i>	Erabilgarria izan daiteke eskaerak egiteko online plataforma bat edukitzea (Ekoaldek bezala). Edo, bestela, eskaerak posta elektronikoz egiteko katalogo bat izatea (Gumendik bezala). Beharrezko tamaina duen biltegia, garraioa planifikatua eta aprobetxatua, plataforma digitala. Ekoizlea: Biltegia, garraioa, baterako eskaera (eskaera komun bat). Baterako proiektuak garatzeko komunitate birtuala ezartzea.
<i>Giza baliabideak</i>	Lanaldi presentzialeko urteko kontratu bat.

3. Mugaz gaindiko Hornikuntza-Unitatea sortzeko baldintzak

Mugaz gaindiko HU baten potentzialaren diagnostikoa ondoko AMIA matrizean laburbildu dugu (4. taula). KKTentzat funtsezkoa da HU batek ekartzen dituen abantailak baliatzea, beren dendak, sukaldeak eta topaguneak hornitzeko. Azken finean, proiektu horiek oso irizpide zorrotzak ezarri dituzte; batzuek elikagai ekologikoak besterik ez dituzte saltzen; beste batzuek, aldiz, 150 kilometroko erradioan ekoiztutako produktuak lehenesten dituzte. Nolanahi ere, ekimen horiek eredu agroekologikoaren aldekoak dira, eta harreman zuzenak garatu nahi dituzte ekoizleekin. Irizpide horiek guztiak bermatu ahal izateko, HUEk ekoizpen txikiaren logistika konplexuari erantzuteko gai direla frogatu behar dute. Horretarako, antolakuntza eta koordinazioa ziurtatu behar dute, bai sektorean bertan, bai kontsumo-kooperatiben artean ere.

4. Taula. Mugaz gaindiko HUaren AMIA matrizea	
Aukera (kanpokoak)	Mehatxuak (kanpokoak)
• Gizarteak kontzientzia handiagoa du, kontsumo-eredu osasungarriak eta konfiantzazkoak eskatzen ditu. • Ekimenak sortzen dira elikadura burujabetzaren inguruan: ekoizpena, kontsumoa, gobernantza. • Euroeskualdeko erakundeek mugaz gaindiko harreman ekonomikoak eta sozialak handitzeko interesa dute.	• Kontsumo ohiturek agroindustriara jotzen dute. • Lehen sektore agroekologikoa ahula da, eskaintza eta eskaria ez daude orekatuta. • Erosketa publikoko lizitazioen irizpideak ez dira produktu agroekologikoetara zuzentzen. • Finantziazio publikoak ez du elikadura-sistema agroekologiko baten aldeko jarrera. • Erakunde publikoek, oro har, ez dute trantsizio baten aldeko jarrera sendorik.
Indarguneak (barnekoak)	Ahuleziak (barnekoak)
• Kontsumo eta lehen sektore agroekologikoa sustatzeko tresna indartsua da. • Krisi ekosozialari aurre egiteko proiektu egokituak eta praktikak dira. • Trantsizio agroekologikorako gaitasuna du. • Gobernantza horizontala sustatzen du. • KKTek adierazten duten konpromiso maila. • KKTen arteko ezagutza eta sartzeta. • Baterako proiektuak abian jartzeko beste esperientzia batzuk izan dira.	• Lankidetzarako zailtasunak KKTen artean. Erritmo eta behar desberdinak. Logistika koordinazioa behar du: kooperatibek ezin dute lan-karga hori hartu. • HUen bideragarritasun ekonomikoa lortzeko zailtasunak (kanpo finantziazioaren beharra). • Kontsumo agroekologikoko erdua ez da masiboa. • Elitistatzat hartzen da. • Logistika konplexua ekoizpen txikiarekin. • Iparraldeko ekoizleengana heltzeko zailtasunak • Eskaintza handitzeko zailtasunak, ezarritako irizpideen barruan.

Iturria: Egileak.

Gaur egun martxan dauden HUEkiko harremanetan sortzen diren gorabeherak artekaritza horren zailtasunak eta oztupoak erakusten dituzte. Horien artean ditugu, besteak beste, elikagai freskoek dendara heltzean duten kalitatea, elikagaien kostua handitzea logistika eta garraioaren ondorioz, banaketaren maiztasun eskasa, edo

eskaerak egiteko eskatzen duten aurrerapen handia. Faktore horiek guztiak kontuan hartu behar dira HU baten bideragarritasuna bermatzeko.

Halaber, Euskal Herrian abian jarri diren HUak jantoki kolektiboak hornitzeko garatu dira batez ere, eta beren bideragarritasuna jarduera horren inguruan egituratu da. Baina HU horiek finkatzeko arazoak dituzte, eta, hortaz, ez daude beste lurralde batzuetara banatzeko erabat prestatuta, hain zuzen ere, KKTetara eraginkortasunez heltzeari dagokionez.

KKTek faltan botatzen dute Iparraldeko ekoizleei buruzko informazioa; izan ere, ez da erraza jakitea nork ekoizten duen zer. Beraz, nekazaritza-proiektuekin harreman zuzena ezartzeko beharra dago, artekariak alde batera utzita. Iparraldean ekoiztutako elikagaiak eskuratzeko zenbait esperientzia izan dira, baina, azken batean, harremanik emankorrenak Iparraldetik hurbilen dauden KKTek izaten dituzte. Izan ere, mugatik gertu dauden kontsumo-elkarteek erakutsi dute harreman hori posible dela, hurbiltasunak logistika arazoak konpontzeko aukera ematen baitu. Baina mugatik urrunago dauden KKTentzat, Iparraldeko produktuen hornikuntza erregularra ez da bideragarria izan (batez ere elikagai freskoei edo kantitate txikiei dagokienez), ahaleginak egin badituzte ere.

Jarraian, KKTetara zuzendutako mugaz gaindiko HU bat egituratzeko zenbait gako emango ditugu: etallan algunas claves para estructurar una US transfronteriza dirigida a las CGC:

A. Logistika

HUaren logistika desberdina izango da elikagaiak freskoen edo eraldatuen kasuan. Zentzu horretan, KKT gehienek fruituen, kontserben eta barazkien eskaintza handitzeko interesa adierazi dute. Hala ere, Iparraldean produzitutako elikagaiak dagokienez, eta abeltzaintza proiektu asko abian badaude ere, fruituen eta barazkien ekoizpena urria da, eta EAetik eta Nafarroatik inportatzen dituzte. Beraz, logikoagoa dirudi Iparraldetik kontserbak eta beste eraldatu batzuk hartzea eta barazkiak, behar izatekotan, Arabako eta Nafarroako ustiatagietatik ekartzea. Azken kasu horretan, aipatzekoa da Araban lan egiten duten ustiatagi agroekologikoez ez dutela oraindik HU bat osatzeko ahaleginik egin.

Elikagai eraldatueta zentralizatutako HU baten logistikak nolabaiteko malgutasuna eskaintzen du; izan ere, besteak beste, eskaerak eta banaketak 15 egunean behin egiteko aukera ematen du. Hala ere, ezinbestekoa da mugatik gertu biltegi fisiko bat izatea, eta produktua dendetara zuzenean eramaten duen banaketa sistema bat ezartzea.

B. Lankidetzarako baldintzak

Lankidetzarako baldintzak ezartzea funtsezkoa da HUaren funtzionamendua egokia izateko. Zentzu horretan, HUa bi norabidetan garatu behar da honako hauek kontuan hartuta: alde batetik, Iparraldeko nekazarien errealitatea; eta, bestetik, KKTen aniztasuna. Funtsezkoa da elikadura katearen alde bietan dauden eragileen erritmoak, beharrak eta gaitasunak errespetatzea, eta HUaren diseinua askotariko egoera horietara moldatzea. Hori posible es balitz, parte hartzeko irizpide argiak eta helburu zehatzak ezarri beharko ditugu hasieratik.

HUak Iparraldeko nekazari agroekologikoen lankidetzara beharko du, eta, gainera, ezinbestekoa izango da KKTek elkar ezagutzea eta sareak sortzea. Zentzu horretan, alde aurretik hainbat esperientzia izan dira non kontsumo proiektuek elkarrekin lan egiten ahalegindu diren, erakunde bakoitzaren beharrak guztion artean betetzeko helburuz. Elkar ezagutzeak lankidetzarako baldintzak ezartzen ditu, baina, hala ere, proiektu komunak abian jartzeko eta egonkortzeko zailtasun asko egon dira. Behar eta erritmo desberdinak izatea oztopo nagusietako bat izan da, baina interesgarria izango litzateke agertutako zailtasunen konponbidean aurrera egitea.

Gainera, nekazarien eta Kontsumo Kooperatiben arteko lankidetzarako baldintzei dagokienez, elkar ezagutzea funtsezkoa izango da bakoitzaren beharrak ulertzeko eta neurtzeko.

C. Bideragarritasun ekonomikoa

HUak izango duen eskaintza eta behar dituen baliabideak eta sargaiak kontuan hartuta, funtsezkoa da egituraren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko moduko eskari minimoa identifikatzea. Hala, HUaren epe ertainerako bideragarritasun plana egiteaz gain, ezinbestekoa da kanpoko laguntza izatea unitate logistikoa abian jartzeko.

Bideragarritasun ekonomikorako oztopo nagusietako bat da elikagaien kostua eta prezio horiei aplikatu beharreko marjina. Jakina, nekazariak ezarri behar dute elikagaien prezioa, eta, gero, KKTek kostu logistikoak dagokien marjina gehitu beharko dute. Hala ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko egoera sozioekonomikoa desberdina dela kontuan hartuta, banaketa-sistema ahalik eta gehien sinplifikatzeak eta gailak murrizteak HUaren bideragarritasun ekonomikoa bermatuko luke.

Beste alde batetik, bideragarritasun ekonomikoa elikagaien kalitatearekin lotuta dago zuzenean; izan ere, horrek baldintzatuko du nahikoa saltzen den ala ez.

D. Konpromisoa

Konpromiso mailari dagokionez, HUaren garapenaren lehen fase horretan ez da baliabide pertsonalak emateko ahalmen nahikorik, ez ekoizleen artean, ez kontsumo proiektuetan. Egoera hori kudeatzeko, KKT bakoitzak bere egoeraren arabera konpromisoak hartzeko aukera ikusten da. Eta, ahal den neurrian, finkatuta dauden egiturak baliatu beharra dago, bai HUenak, bai beste nekazari-elkarte batzuenak. Beste alde batetik, konpromisoa gutxieneko eskaeren bitartez ere adieraz daiteke, adibidez, urtean eskaera bat KKT bakoitzeko.

Eskaintzari dagokionez, beharrezkotzat jotzen dute nekazarien konpromisoa bermatzea, eskaintza zabal bat ziurtatzeko, katalogo bati lotuta. Halaber, gutxieneko eskaera-bolumen bat bermatu beharra dago. Zentzu horretan, tamaina txikiko nekazaritza proiektuek eskaintza hori denboran mantentzeko zailtasunak izan ditzakete. Izan ere, nekazarien lehen planteamendua konpromiso zorrotzik hartu gabe hastea izan da. Arazo horren konponbideetako bat izan daiteke eskaintzaren eta eskariaren artean oreka bat aurkitzea, etorkizunerako plangintza bat egin bitartez.

E. Beharrezko baliabideak

Azkenik, HUaren funtzionamendua bermatzeko gutxieneko baliabideak identifikatu dira: online plataforma bat edo katalogo bat, garraioa, biltegia eta giza baliabideak, besteak beste. Beste faktore giltzarri bat da eskaerak eta ordainketak antolatzeko modua, eta horiek kudeatzeko bitartekoak. Ekoizleen ikuspegitik, KKTeK egindako eskaera bakarra ustiategi bakoitzera heldu beharko litzateke. Beste aldetik, KKTeK eskaerak erraztu nahi dituzte, eta ordainketak faktura bakar baten bitartez egiteko beharra ikusten dute. Hau da, HU batek abantaila hori izan dezake, ekoizleen arteko antolakuntza eta KKTeK arteko lankidetzaren erraztu baitezake.

Hortaz, KKTeK beharrak ikusita, agerikoa da Iparraldeko elikagai agroekologikoak mugaz harago banatuko dituen HU bat osatzeko borondatea dutela. Baina, kontuan hartuta Iparraldean batez ere elikagai eraldatuak edo kontserbak egiten direla, aurreikus dezakegu banaketa produktu horiena izango dela. Hala ere, ESAen eskala-jauzi handi bat lortzeko, fruitu eta barazki agroekologiko desberdinen hornidura lortzeko aukerak esploratzen jarraitu behar dugu. Hortaz, epe ertainera begira lehentasunezkoa da ekoizpen-ekimen agroekologikoak sustatzea.

HUaren bideragarritasun ekonomikoa lortzeko, haren diseinuak noranzko biko funtzionamendua izan behar du: Iparraldean ekoiztutako elikagaiak Hegoaldeko


KKTetara hurbiltzea, eta, aldi berean, Hegoaldean ekoiztutako elikagaiak Iparraldeko kontsumo-elkarteetara hurbiltzea, hain zuzen ere, mugatik gertu dauden horietara.

Prozesu hori mailaka egin behar dugu. Hau da, hasieran oinarrizko egitura batekin hasiko gara, eta hura handituz joango da tartean dauden eragileen beharren eta eskaeren arabera. Gainera, abian dauden antzeko HUen egiturak erabiliko ditugu, eta horiek iraunkortasuna sustatuko dugu. Gaur egun, Euskal Herrian garatutako HUak hastape-fase batean daude; hortaz, ez dago lankidetza-esparru hori sortzeko baldintza nahikorik, eta elkar ezagutzen lagunduko dieten ekintzak abian jarri behar ditugu (KKTen artean, KKTen eta ekoizleen artean, eta ekoizleen beren eta ekoizle-elkarteen artean ere). Halaber, parte-hartzaileen konpromisoa sustatu beharko dugu.



III. Atala

Elikadura sistema eta merkatu alternatiboak
Ekuadorreko Pichincha, Imbabura eta
Cotopaxi probintzietan



1. Ekuadorreko elikadura sare alternatiboak

Elikadura sare alternatiboak (ESA), Ekuadorren, eredu konbentzionaletik eredu agroekologikora igaro nahi zuten ekoizle txikien proposamen gisa sortu ziren. Trantsizio horretan, ekoizleek printzipio ekologikoak, sozialak eta ekonomikoak txertatu nahi zituzten elikadura-sistemaren harremanetan. Aintzatespen hori gorabehera, elikadura burujabetzan eta agroekologian oinarritutako elikadura-sistema batera igarotzeko, erronka handiak daude eskalagarritasunari eta iraunkortasunari dagokienez.

Agroekologian oinarritutako ESA horiek hazkunde handia izaten ari dira herrialdean; izan ere, kontsumitzailea gero eta gehiago arduratzen da elikagaien jatorriaz eta ekoizteko moduz.

Estatu mailan, gorabide horrek produktu agroekologikoen merkaturatzea errazten duten hainbat azoka, merkatu eta kontsumo-saski ekarri ditu; eta, maiz, Gobernu Autonomo Deszentralizatuen (GAD) eta GKEen edota unibertsitateen laguntza dute.

Ikerketaren atal honetan, elikadura burujabetzarako agroekologian oinarritutako ESAko hainbat esperientzia identifikatuko eta aztertuko ditugu Pichincha, Cotopaxi eta Imbabura probintzietan, baita ESAak indartzeko eta finkatzeko oztopoak eta elementu lagungarriak ere. Horretarako, politika, gizarte, ekonomia eta ingurumen dimentsioak aztertu beharko ditugu. Hala, probintzia horietako elikadura sistema eta sare alternatiboen esperientziak aukeratu genituen, lurralde horiek elkarrengandik hurbil daudelako eta Ekuadorreko hiriburua hornitzen duten nekazaritza eta elikadura zirkuituen parte direlako. Quito hiriburua Ekuadorreko hiririk handienetako bat ere bada, biztanleriari dagokionez [26].

Gainera, hiru probintzia horiek Ekuadorreko Nekazaritza Ministerioak (MAG) merkataritza zirkuitu laburrak indartzeko egindako politika publikoko estrategietan agertu ziren. Hala, Ministerioaren Merkaturatze Zirkuitu Alternatiboen erregistroak probintzia horietan erregistratu ditu esperientzia gehien [27].

Azkenik, herrialdeko ikerketa-eremua aukeratzeko, beste elementu garrantzitsu bat hartu genuen kontuan, hain zuzen ere, nekazaritza eta elikadura sistema eta merkatuei buruzko informazio eguneratua eta fidagarria izatea. Izan ere, horrek eskalagarritasunerako dituzten ezaugarriak, indarguneak, aukerak eta erronkak sakon aztertzeko eta Gipuzkoako ekimenekin alderatzeko aukera ematen digu.

Beraz, ikerketaren atal honen helburuak honako hauek dira:

1. Elikadura burujabetzarako agroekologian oinarritutako ESAek dituzten oztopoak identifikatzea eta aztertzea. Horretarako, Pichincha, Cotopaxi eta Imbabura probintzietako ekoizleen eta kontsumitzaileen ekoizpen, politika, ekonomia, ingurumen, gizarte eta kultura testuinguruak kontuan hartuko ditugu.
2. Tokiko ekoizleen eta kontsumitzaileen ezagutza eta ikaspen nagusiak eta jardunbide egokiak zehaztea, hain zuzen ere, ESAen eskalagarritasun prozesua errazteko gida izan daitezken horiek.
3. Ekuador eta Gipuzkoako esperientzien elementu erraztaileak eta nodo kritikoak alderatzeko aukera ematen diguten emaitzak lortzea, hain zuzen ere, ESAen eskalagarritasuna erraztu dezaketene horiek.

2. Merkatu agroekologikoak

Esan dezakegu merkatu agroekologikoak baserritarren eta ekoizleen produktuak (ahal dela, jatorri agroekologikoa duten horiek⁵) merkaturatzeko guneak direla. Merkaturatze-gune horiek Elikadura Sare Alternatiboen (ESA) eta Merkaturatze Kanal Laburren (MKL) barruan kokatzen dira [28]. ESAen eta MKLen garapena, bada, alternatiba bat da banaketa handian eta balio kate konbentzionaletan oinarritutako ereduaren aurrean [20].

Ekuadorreko merkatuak Elikadura Burujabetzako Erregimenaren parte dira. Erregimen hura Ekuadorreko Konstituzioaren 281. artikuluan eta 2010eko Elikadura Burujabetzako Erregimenaren Lege Organikoan (LORSA) jasotzen da. Merkatu horiek garatzeak ekoizpen agroekologikoaren hazkunde potentziala bultzatzen du. Izan ere, alde batetik, eskala txikiko ekoizleak merkaturatze kanal laburretan parte hartzeko aukera eskaintzen dio, eta sortutako balio erantsiaren zatirik ahalik eta handiena bereganatzeko aukera ematen dio. Bestetik, merkatu horiek elikagai osasungarriak eta garbiak lortzeko aukera ematen diete kontsumitzaileei.

Kontsumitzaileek gero eta gehiago kontsumitzen eta baloratzen dituzte produktu agroekologikoak, eta, horren ondorioz, ekoizpen ekologikora bideratutako azalera

5 Agroekologia printzipio ekologikoak agroekosistematan aplikatzen dituen maneia da. Zorua eta landaren ahalmena hobetzen eta izurriteak ahultzen ditu [29]. Halaber, agroekologia agroekosistema osasungarria eraikitzeke zientzia eta jardunbide multzoa da [30].

globalak gora egin du (51 milioi hektareatik 78ra 2015-2022 aldian, hau da, % 53ko hazkundea⁶). FIBL eta IFOAM erakundeek arabera, munduko ekoizpen ekologikoaren balioa 134.760 milioi eurokoa izan zen 2022an⁷. Ekuadorren, merkatu agroekologikoen hazkundeak hiriko kontsumitzaileen ohiturak pixkanaka aldatzea eragin du, produktu baserritarrak eta agroekologikoak baloratzeari dagokionez [31].

Merkatu agroekologikoak Elikadura Sare Alternatiboen parte dira. Sare horiek, bada, elikagai agroekologikoak, bidezko merkataritzakoak eta tokikoak dituzten elikadura-ekonomiako eremuak dira, eta espazialki, ekonomikoki eta sozialki lotuta daude [28].

Produktu agroekologikoak ESAen eta zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko gune horiek, bada, artikulazioak eragin ditzakete, batez ere elikagaien jatorriaz kezkatzen diren eta kontsumo arduratsuko modu berriak garatzen dituzten pertsonen artean [24].

Ekuadorren kasuan, ESAen eta merkaturatze zirkuitu laburren adibiderik ezagunena “saski komunitarioak” dira. Horiek, zenbait kasutan, elikagaien prezioa murriztea lortu dute, eta, hala, elikagaiak eskuratzea erraztu dute. Halaber, nekazari agroekologikoekin harreman zuzenak ezartzen lagundu dute [32]. Nekazarien eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzen horiek lagungarriak izan daitezke hirietan merkaturatze-guneak sortzeko. Halaber, elikadura burujabetzaren aldeko politika publikoak bultzatzen dituzte, kontsumitzaileen eta ekoizleen artean merkataritza zuzeneko sareak sortzeko.

Kontsumitzaileek, merkataritza alternatiboko sare horiekin batera, elikadurari buruzko prestakuntza eskatzen dute. Zenbait kasutan, hiriko eta hiri inguruko nekazaritzako ekimenen bitartez, kontsumitzaileak beren elikagaien ekoizle ere bilakatu dira, baserritarren produktuen osagarri gisa.

Hala, hiria agronegozioaren ereduarekin lehian dagoen eremu bilakatu da, bertan baitaude kontsumitzaile gehienak. Bada, kontsumitzaileek funtsezko eginkizuna dute elikagaiak eskuratzeko modu berriak sortzeko, eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko merkataritzarako guneak (herri merkatuak, azoka agroekologikoak) berreskuratzeko presionatzen dute.

Beraz, kanal laburretatik banaketa handiaren hegemonia zalantzan jartzen duen alternatiba bat sortzen ari da, hiriak elikagaiz hornitzeko. Kontsumitzaileen

6 FAOren nekazaritzari eta elikadurari buruzko 2024ko urtekariko datuak.

7 FIBL eta IFOAM: *Organics International 2024. The World of Organic Agriculture*.

artikulazioa txikia da oraindik banaketa handiarekin alderatuta, baina hazten ari da, batez ere elikagai prozesatuek osasunean eragiten dituzten kalteak ikusita. Esate baterako, gero eta gizarte mugimendu gehiagok, hirietan, justizia aldarrikatzen dute elikaduran zein merkataritzan, baita elikagai organikoak eta *slow food* edo janari geldoa ere, besteak beste [22]. Eragile horiek, bada, hornikuntza zuzena ezarri nahi dute kontsumitzaileen eta ekoizleen artean.

Azkenik, aipatu beharra dago ESAen hazkunde hori tokiko eta nazio mailako gobernuek ematen duten babesaren arabera dela, neurri handi batean. Izan ere, gobernu horiek beharrezkoak diren azpiegiturak eta politikak eman ditzakete, kontsumitzaileek tokiko elikagai ekologikoak eta baserritarrak eskuratzeko aukera izan dezaten. Zentzu horretan, nabarmentzekoak dira tokiko zenbait hornikuntza-esperientzia, tokiko gobernuen babesaz aurrerapen handiak egin dituztenak [33].

3. Aztertutako esperientzien ezaugarri nagusiak

Ekuadorren kasurako, guztira merkaturatze alternatiboko 35 esperientzia aztertu ditugu Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan. Halaxe adierazi dugu metodologiari buruzko atalean, ondoko taularen eta maparen arabera:


5. Taula. Elikadura merkatu alternatiboko esperientziak Ekuadorreko Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan

Zk.	Izena	Hiria	Probintzia
1	Madre Tierra. Alimentos Sanos	Quito	Pichincha
2	La Floresta. Mercado agroecológico	Quito	Pichincha
3	La cosecha del día	Quito	Pichincha
4	Tienda Orgánica El Motilón	Quito	Pichincha
5	Feria agroecológica La Carolina	Quito	Pichincha
6	Tienda Wayruru Orgánico	Quito	Pichincha
7	Feria agroecológica de la Universidad Central del Ecuador	Quito	Pichincha
8	Feria agroecológica en la Universidad Andina Simón Bolívar	Quito	Pichincha
9	Granja Integral Chaupichupa	Quito	Pichincha
10	Granja Integral Pachamama	Quito	Pichincha
11	Finca Orgánica Chaupi Molino	Quito	Pichincha
12	JUAN GRANEL consumo consciente	Quito	Pichincha
13	Feria Agroecológica	Quito	Pichincha
14	Feria Solidaria y Agroecológica en la Plaza Intercultural de Cayambe	Quito	Pichincha
15	Runa Sumak Mikuy	Quito	Pichincha
16	Feria agroecológica - BanEcuador	Quito	Pichincha
17	Feria agroecológica e intercambio de semillas "Mariana Pizarro"	San Miguel de los Bancos	Pichincha
18	Feria agroecológica La Campesina	Cayambe	Pichincha
19	Feria Agroecológica Álvarez Chiriboga	Cayambe	Pichincha
20	Feria Agroecológica La Esperanza	Tabacundo	Pichincha
21	Feria Agroecológica BioVida	Cayambe	Pichincha
22	Feria agroecológica Kurikancha Saludable	Ibarra	Imbabura
23	Feria Agroecológica Sumak Pacha	Otavaló	Imbabura
24	Warmi Razu. Feria Agroecológica y gastronómica	Cotacachi	Imbabura
25	Feria del campo a la ciudad	Ibarra	Imbabura
26	Feria agroecológica El Águila	Ibarra	Imbabura

Zk.	Izena	Hiria	Probintzia
27	Feria de Semillas Muyu Raymi Cotacachi	Cotacachi	Imbabura
28	Festividad agroecológica Kuya Raymi	Otavallo	Imbabura
29	Feria orgánica de la mata a la olla	Latacunga	Cotopaxi
30	La Chakra-Feria Agroecológica	Pujilí	Cotopaxi
31	Feria agroecológica de la Prefectura de Cotopaxi	Latacunga	Cotopaxi
32	Feria agroecológica runa mikuy	Latacunga	Cotopaxi
33	Feria Agroecológica, Gastronómica y de Turismo en Sigchos	Sigchos	Cotopaxi
34	Ecofest Latacunga	Latacunga	Cotopaxi
35	Feria de Intercambio de Semillas y Producción Agroecológica	Saquisilí	Cotopaxi

Iturria: Egileak.

Quitotik hurbil daudelako aukeratu ditugu esperientzia horiek; izan ere, Quito, Ekuadorreko hiriburua ez ezik, herrialdeko hiri nagusietako bat da. Aztertutako esperientziak hiriburua eta ingurua hornitzen dituen nekazaritza eta elikadura sistemaren parte dira. Ondoko mapan, sistematizatutako esperientzien kokapena ikus dezakegu:



Hurrengo estekan, ikerketan egindako maparen bertsio interaktiboa aurkituko duzue:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=14l--6VDjP7Jxik17FwNAdoxmbYb1dmI&usp=sharing>

Iturria: Egileak, ikerketan jasotako informazioan oinarrituta.

Elkarrizketetan eta aztertutako kasuetan oinarrituta, esperientzia horiek nekazaritza eta elikadura sistema finkatuago batera eskalatzea oztopatzen duten alderdi nagusiak identifikatu ahal izan genituen. Finkapen eta eskalatze horrek aukera eman beharko lieke hiriko –batez ere Quitoko– biztanleei nekazaritza baserritarretik datozen elikagai agroekologikoak eskuratzeko, eta, horrela, elikadura burujabetza eraikitzen laguntzeko. Izan ere, herrialdeko Konstituzioak honako hau adierazten du 281. artikuluan:

“Elikadura burujabetza helburu estrategikoa eta Estatuaren betebeharra da, hain zuzen, pertsonak, komunitateak, herriek eta nazionalitateak elikagai osasungarrien eta kulturalki egokien autosufizientzia iraunkorra lor dezaten” [34].

Jarraian, Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietako azoka agroekologikoen ezaugarriak laburbilduko ditugu, lau dimentsio nagusi hauen arabera: eskaintzen dituzten produktuak, kontsumoaren tipologia, administrazio publikoen laguntza eta identifikatutako indarguneak eta erronkak.

3.1. Pichinchako Probintzia

Ekuadorreko Pichincha probintzian, azoka eta merkatu agroekologikoek bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua eta ekoizpen jasangarria sustatzeko helburua dute. Esperientzia horiek uztartzen dituzte, batetik, produktu organikoen eta agroekologikoen salmenta zuzena eta, bestetik, hezkuntza eta komunitate ikuspegiak. Jarraian, horien ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu.

Eskaintzen dituzten produktuak

Azoka horietan aurkitzen diren produktuak askotarikoak dira, hala nola fruituak, barazkiak, ortuariak, tuberkuluak eta aleak, baita marmeladak, irinak, kontserbak, esnekiak eta beste elikagai eraldatu batzuk ere. Gainera, ekimen horietako askok elikagai prestatuak, kosmetiko naturalak, artisau-lanak eta sendabelarrak ere izaten dituzte. Azken horien adibide dira La Carolinako Azoka Agroekologikoa, modu arduratsuan maneiatutako haragiak eta kosmetiko naturalak dituen, eta Granja Integral Pachamama, produktu freskoek osatutako sakiak etxetik etxetik banatzen dituen. Ikuspegi horrek kalitatea eta kontsumitzaileen eta iraunkortasunaren arteko lotura lehenesten ditu.

Kontsumitzaileak

Ekimen horietako kontsumitzaileen profila azokaren kokapenaren eta motaren arabera aldatzen da. Oro har, pertsona helduak dira, gizonak eta emakumeak, eta, zenbait kasutan, gazteak eta jubilatuak ere. Esate baterako, Ekuadorreko Unibertsitate Zentrala eta Simón Bolívar Andeatako Unibertsitatea bezalako eremu akademikoetan kokatutako azoken bezeroak unibertsitarioak izan ohi dira, batez ere, ikasleak, irakasleak eta administrazioako langileak. Beste alde batetik, Runa Sumak Mikuy eta Juan Granel bezalako merkatuek hainbat adinetako kontsumitzaileak erakarri dituzte, hain zuzen ere, paketeak murriztean eta merkataritza kontzientean interesatuta dauden horiek.

Gobernuaren eta tokiko administrazioen laguntza

Erakunde publikoen laguntza oso desberdina da esperientziaren arabera. Zenbait azoka –adibidez La Floresta– Quitoko Udalak berak bultzatu ditu, eta laguntza teknikoa, logistikoa eta finantzarioa eman die azpiegitura hobetzeko eta kudeaketa-eredu iraunkorrak sustatzeko. Cayambeko azoka agroekologikoak bezalaxe, beste ekimen batzuek Cayambeko Gobernu Autonomo Deszentralizatuaren (GAD) babesa izan dute. Hark espazio publikoak erabilera eta merkaturatzeko jardunaldien antolaketa erraztu du. Hala ere, zenbait esperientziak zailtasun handiak izan dituzte, ez baitute laguntza publikorik edo pribaturik jasotzen. Horixe da Granja El Motilón eta Wayruru Orgánico esperientzien kasua. Haiek, hortaz, sare komunitarioetan oinarritzen dira beren operazioak garatzeko.

Indarguneak eta erronkak

Esperientzia horien indarguneen artean, azpimarratzekoak dira kontsumitzaileak jardunbide jasangarrietan hezteko gaitasuna, emakume ekoizleen inklusio ekonomikoa eta genero-berdintasuna bezalako agenda handiagoekin duten konexioa. Hala ere, erronka handiak dituzte, hala nola supermerkatu kate handien lehia, produktu organikoak garestiagoak direlako ideia eta marketin estrategia eraginkorrak garatzeko beharra.

3.2. Imbaburako Probintzia

Ekuadorreko Imbabura probintzian azoka agroekologikoak funtsezko guneak dira merkataritza iraunkorreko jardunbideak sustatzeko, tokiko ekonomiak indartzeko eta antzinako jakintzak gordetzeko. Pichinchan bezalaxe, produktu agroekologikoen

salmenta eta hezkuntza eta kultura ikuspegiak uztartzen dituzte. Jarraian, horien ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu.

Eskaintzen dituzten produktuak

Imbaburako azoka agroekologikoei askotariko eta kalitatezko produktuak dituzte, hala nola fruituak, barazkiak, aleak, esnekiak, haragiak (landako akuriak eta oilaskoak), kosmetiko naturalak eta elikagai prestatu tradizionalak. Esate baterako El Águilako azoka agroekologikoak produktu eskaintza zabala du, irin eta ogi tradizioaletatik jasi eta *colada* bezalako edari tradizioaletaraino. Muyu Taymi Cotacachi hazien azokak, aldiz, produktu agroekologikoak merkaturatzen ditu, eta bioekintzailatzak eta hazien kontserbazioa lantzen ditu. Azoka horiek, merkaturatzeaz gain, ingurumena babesteko praktikak ere sustatzen dituzte.

Kontsumitzaileak

Azoketara doazen kontsumitzaileak askotarikoak dira, eta, maiz, helduak, gazteak eta jubilatutakoak izaten dira. Zenbait kasutan, hala nola Warmi Razu azokan, bezeroak tokiko komunitateak zein elikagai osasungarrietan eta jasangarrietan interesatutako bisitariak dira. Beste azoka batzuetan, hala nola Kurikancha Saludable delakoan, trukean eta jardunbide ekonomiko alternatiboetan interesatutako lagunak ere izaten dira.

Gobernuaren eta tokiko administrazioen laguntza

Instituzioen babesa heterogeneoa da eskualdean. Zenbait azokak, hala nola Sumak Pacha Azoka Agroekologikoak Otavaloko kantonamenduko GADaren laguntza handia dute. Hark espazioak, logistika eta ekipamendua ematen die. Beste alde batetik Muyu Raimi hazien azokak eta beste batzuek hainbat erakunderen laguntza dute, hala nola unibertsitateena, tokiko gobernuena eta nazioarteko erakundeena. Azkenik, Kurikancha Saludable bezalako beste ekimen batzuek laguntza publiko edo pribaturik gabe jarduten dute, eta horrek beren hedatzeko gaitasuna mugatzen du.

Indarguneak eta erronkak

Indargune nagusien artean aurkitzen ditugu emakumeen independentzia ekonomikoa sustatzea, antzinako jakintzak integratzea eta produktuak dibertsifikatzea. Esate baterako, Warmi Razu emakume ekoizleek lideratzen dute, eta azokak beren ahalduntze ekonomikoa indartzen du. Gainera, Muyu Raymi bezalako azokek eragin kultural eta hezigarri handia dute, bioaniztasuna eta hazien kontserbazioa sustatzen baitituzte.

Hala ere, erronka handiak dituzte. Ohiko oztopoak dira, besteak beste, merkaturatzeko espazioari dagozkion mugak, marketik estrategiarik ez izatea eta kontsumitzaileek produktu agroekologikoen inguruan duten prestakuntza eskasa. Adibidez, Sumak Pacha azokaren kasuan, espazio mugatuak ekoizleen irismena mugatzen du. Muyu Raymi azokan, aldiz, hirian produktu organikoen inguruan dagoen ezjakintasuna ageri da.

3.3. Cotopaxiko Probintzia

Ekuadorreko Cotopaxi probintzian, azoka agroekologikoak elikadura burujabetzaren eta merkataritza iraunkorraren adierazpen esanguratsua dira. Azoka horiek oinarritzko erakundeek zein erakunde publiko eta pribatuekin egindako aliantzek sustatzen dituzte, eta agroekologiarekin, kontsumitzaileen prestakuntzarekin eta antzinako jardunbideen biziberritzearekin konprometituta daude. Jarraian, esperientzia horiek ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu.

Eskaintzen dituzten produktuak

Cotopaxiko azoka agroekologikoek askotariko produktuak eskaintzen dituzte, hala nola fruituak, barazkiak, tuberkuluak, Andeetako aleak, irinak, esnekiak, edariak eta akuria eta oilo haragiak. Esate baterako, Latacungako De la mata a la olla azoka organikoak eskaintza anitza du, sasoiko produktu freskoekin, eta Pujilíko La Chakra azoka agroekologikoak, aldiz, Andeetako aleak eta eskualdeko elikagai tipikoak ditu. Esperientzia horiek Cotopaxiko nekazaritzaren aberastasuna erakusten dute, baita kimikorik gabeko ekoizpenarekin duten konpromisoa ere.

Kontsumitzaileak

Azoka horietara joaten diren kontsumitzaileak askotarikoak dira, eta, maiz, helduak, gazteak eta jubilatuak izaten dira. Horrek, bada, elikadura-jardunbide jasangarrietan interesatutako kontsumitzaile anitz erakartzeko duten ahalmena erakusten du. Gainera, produktu agroekologikoetan oinarritutako ikuspegiak kontsumitzailea kontzientziatu nahi du, eta ingurumena errespetatzen duten kontsumo arduratsuko ereduak sustatu.

Gobernuaren eta tokiko administrazioen laguntza

Instituzioen laguntza funtsezko faktorea da azokak finkatzeko. La Chakra azoka agroekologikoa, esaterako, Cotopaxin Agroekologia eta Elikadura Burujabetza

Sustatzeko Ordenantza baten ondorioz sortu zen, eta Cotopaxiko ekoizle agroekologikoen batzordearen eta beste 20 erakunde publiko eta pribatu eta GKEren babesa du. Beste alde batetik, De la mata a la olla azoka organikoak gaikuntza teknikoak jaso ditu Heiger fundazioaren eskutik, eta horrek ekoizleen gaitasunak indartu ditu.

Indarguneak eta erronkak

Ekimen horien indarguneen artean tokiko komunitateak mobilizatzeko eta praktika agroekologikoak sustatzeko ahalmena da nagusi. “La Chakra azoka agroekologikoak, adibidez, probintziako zazpi kantonamenduetako ekoizleak biltzen ditu, eta eremu inklusiboa eta kolaboratiboa sortzen du. Halaber, azoka horiek tokiko festa eta kultura-jarduerekin lotuta daude, adibidez, “Ecofest Latacunga” jaialdiarekin. Horrek horien erakargarritasuna eta irismena handitzen du.

Nolanahi ere, ekimenek erronka handiak dituzte, hala nola zabalkunde handiagoa lortzea eta kontsumitzailea heztea, produktu organikoen eskaria handitzeko. Produktu horiek garestiak eta eskuratzeko zailak direlako ideia oztopo handi bat da, eta ekimen askok gobernuen laguntza logistiko eta tekniko jarraituagoa behar dute.

3.4. Identifikatutako indargune eta botila-lepo nagusiak

Aztertutako kasuetan, azoka agroekologiko, merkatu eta denda alternatibo guztiek indarguneak dituzte, jarraian azalduko dugun bezala.

Eremu horiek hezteko eta eragiteko ahalmena dute; izan ere, eragileek sustatutako esperientziek, nolabait, honako gai hauetan eragiteko helburua dute: birziklatzea, nekazaritza jardunbide jasangarriak eta etikoak, kontsumitzaileak kontsumo arduratsuan heztea, lurzorua zaintzea, bidezko merkataritza, antzinako jakintzak berreskuratzea, eta abar.

Unibertsitateek sustatutako esperientziek ikasleak ekoizpen-prozesuekin lotzeko aukera ematen dute, eta, hala, ikerketak egiteko eta ekoizleak eta kontsumitzaileak trebatzeko aukera ere. Baina hezkuntza-erakundeak ez dira arlo horretan lan egiten duten bakarrak; aitzitik, gizarte zibileko erakundeek ere arlo horretako estrategiak inplementatzen dituzte, hala nola ustiategiak bisitatzea, hitzaldiak edo tailerrak antolatzea eta zabaltzeko materialak egitea.

Esperientzia askotan, instituzioen laguntza indargune garrantzitsua da, eta ekimenaren iraunkortasuna bermatzen du, Hain zuzen, zenbait prefektura eta udalen eginkizuna funtsezkoa da, azokak egiteko dirua gordetzen baitute aurrekontuetan, edo azokak udal ordenantzaren bitartez instituzionalizatzen baitituzte. Gainera, laguntza logistikoa eta espazioak erabiltzeko aukera ere ematen dute, unibertsiteen kasuan ere. Hala ere, oraindik azoka gutxi jasotzen dute tokiko gobernuen laguntza.

Bestetik, saltoki alternatiboetako batzuek jarduera gutxi duten hobietan lan egiten dute, hala nola, landako hegaztien hazkuntzan edo arrautza ekologikoen ekoizpenean. Lehia gutxi dagoenez, hazteko potentzial handia dute. Gainera, zenbait esperientzian ekoizpen-kate osoa kontrolatzen dute, ekoizpenetik merkaturatzera. Ildo horretan, azoka batzuek ustiategi agroekologikoak ikuskatzeko sistemak edo berme-sistema partizipatiboak dituzte.

Zerbitzu gehigarriak ematea beste indargune bat da, baina oso esperientzia gutxi egiten dute. Hain zuzen, azoka batzuetan *express* zerbitzua eta etxex etxeko banaketa eskaintzen dute.

Azkenik, esperientzia horietan parte hartzen duten emakumeen ahalduztzean duten potentziala aipatu nahi dugu. Aztertutako kasuetako batzuetan, ekoizle gehienak emakumeak dira eta, haientzat, onura ez da ekonomikoa soilik; aitzitik, gaitasunak garatzen, genero berdintasuna sustatzen eta jabetza eskuratzen ere laguntzen diete.

Ekuadorreko ESAek dituzten botila-lepoei edo erronkei dagokienez, erronka nagusia biztanleriaren iritziei eta kontsumo-ereduei dagokie. Izan ere, produktu organikoak garestiagotzat hartzen dituzte, eta, hortaz, biztanleriako sektore batzuek ez dituzte horiek kontsumitzen. Nabarmendu nahi dugu Ekuadorrek krisi ekonomiko larria jasan duela azken urteotan, eta horrek klase herritarren erosteko ahalmena murriztu duela. Nolanahi ere, kontsumitzaileen sentsibilizazioa eskasa da, produktu organikoak kontsumitzearen abantaila eta bidezko merkataritza, ekoizpen jasangarria edo kontsumo arduratsua bezalako gaiei dagokienez.

ESAak hedatzeko beste zailtasun bat da supermerkatu kate handien lehia, kontsumitzaileek gune horietara jotzen baitute. Saltoki alternatiboen desabantaila egoera horrek beren hazkundera mugatzen du eta beren iraunkortasuna arriskuan jartzen du.

Beraz, instituzioen laguntza garrantzitsua bada ere, ESAak garatzeko beharrezkoak dira elikagaien merkaturatze-gune alternatiboak hobetzen laguntzen duten eta

ekoizpen baserritar agroekologikoa sustatzen duten politika publikoak. Tokiko gobernuek bultzatutako azokak, adibidez, ez dira ohikoak eta jarraituak izaten; aitzitik, urtean gutxitan egiten dira eta herriko egun berezietan. Hortaz, ez dago merkaturatze-gune iraunkorrik. Jakina, horrek aztertutako esperientzien irismena handitzeko aukera mugatzen du.

Beste alde batetik, azoka agroekologikoen eta merkatu eta saltoki alternatiboek zailtasunak dituzte salmenta eta posizionamendu estrategien arloan ere. Horietako zenbaitek logistika eta banaketa ahalmen mugatua dute. Gutxi batzuek besterik ez dituzte merkaturatze eta banaketa kanal berriak esploratu –adibidez, etxez etxeko banaketa– edo ordainketa elektronikoko mekanismoak ezarri.

Aipatu bezala, kontsumitzaileek, oro har, uste dute ESAen bitartez merkaturatutako produktuak garestiagoak direla, nagusi den nekazaritza sistemaren produktuekin alderatuta. Hala ere, ESAak garatzeak ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenagoak ekar ditzake, eta produktu baserritar agroekologikoen hirietan saltzen lagun dezake. Horretarako, elikadurari eta osasunari buruzko kontzientziazio-kanpainak abian jarri beharra dago, kontzientzia sozial handiagoa pizteko.

Esate baterako, Andeatako Unibertsitatearen kasuan, azken urteotan unibertsitate-komunitateak kontsumo arduratsuaren inguruan duen kontzientzia handitzearekin batera ezarri dute azoka agroekologikoa. Horrek aukera positiboak sortzen ditu produktu agroekologikoen eremu horretan merkaturatzeari dagokionez. Hala, adin guztietako kontsumitzaileek –unibertsitate ikasle gazteek zein familiako amek– modu bidezkoan eta osasungarrian ekoiztutako elikagaiak kontsumitzeko interesa dute.

Identifikatutako beste arazo bat da saltokiek eta jatetxeek produktu agroekologikoen hornidura erregularra lortzeko zailtasuna dutela (produktu agroekologikoen eta ez-agroekologikoen edo ez-organikoen nahastearekin alderatuta). Izan ere, produktu agroekologikoen eskuragarritasuna eskasa da urteko zenbait unetan. Horrekin batera behar duten kantitatea hornitzeko jarraitutasunik eta dibertsitatearik eza aurkitzen dugu. Izan ere, maiz, saltokiek eta jatetxeek ez dute produktu agroekologiko nahikorik lortzen, eta horrek beste ekoizle ez-agroekologiko batzuetara jotzera eramaten ditu, beste horiek produktu horiez hornituko dituztelakoan [komunikazio pertsonala unibertsitateko jatetxe bateko arduradunarekin].

Produktu agroekologikoen dibertsitatearen arazoa argia da produktu horietako batzuen ekoizpen agroekologiko txikia ikusita. Izan ere, horietako batzuk –adibidez, baratxuria– ezinbestekoak dira familien eta jatetxeen egunerokoan. Hori dela eta,

elkarrizketatutako batzuen ustez, trantsizioan dauden ekoizleak ere sartu behar ditugu ESAetan, nekazaritza eta elikadura sistema modu integral batean eraldatzeko aukera emango digun eskala lortzeko.

Azkenik, ordainbide konbentzionalak (faktura bitartez) erronka bat dira ekoizle agroekologiko askorentzat. Esate baterako, unibertsitateetako kafetegiak produktuen fakturak behar dituzte, baina ekoizle agroekologiko askok ezin dituzte egin. Egoera hori arin aldatzen ari den arren, oraindik botila-lepo garrantzitsua da jatetxeei, ikastetxeei eta beste kontsumitzaile handi batzuei saltzeko.

6. Taula. Ekuadorreko elikagaien merkatu alternatiboetan identifikatutako aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulezien (AMIA) matrizea

Aukerak (kanpokoak)	Mehatxuak (kanpokoak)
- Aztertutako esperientziek hezteko eta politikan eragiteko ahalmena dute; izan ere, eragile gehienek, nola edo hala, honako gai hauetan eragin nahi dute: birziklatzea, nekazaritza jardunbide iraunkorrak, kontsumitzaileen sentsibilizazioa, lurzorua zaintzea, eta antzinako jakintzak berreskuratzea, besteak beste. - Unibertsitateek eta ikastetxeek sustatutako esperientziak ikasleak ekoizpen prozesuekin lotzen laguntzen dute, eta ikerketak egiteko eta ekoizleak eta kontsumitzaileak trebatzeko aukera ematen dute. - Ekoizleak zein azoketan eskaintzen dituzten produktuek ospe ona dute kontsumitzaileen artean. - Probintzia eta udal mailako gobernuek laguntza ekonomikoa eta politikoa ematen diete elikadura sare alternatiboei eta nekazaritza baserritarreko produktuen merkaturatzeari. - Nazioarteko lankidetzak zenbait laguntza ematen ditu nekazaritza eta elikadura sistemaren eraldaketa sustatzeko eta nekazaritza baserritarra eta agroekologikoa bultzatzeko.	- Gobernu nazionalak babes handia ematen dio nagusi den nekazaritza eta elikadura sistemari. Hala, mesede egiten die batez ere agroindustriari, agronegozoiari eta supermerkatuei. - Tokiko gobernuek nekazaritza baserritarreko eta agroekologikoko produktuak merkaturatzeko sortutako eremuak ez dira nahikoak hiriko kontsumitzaile gehienengana heltzeko. - Politika publiko nazionala nahiz nekazaritza eta elikadura sistemaren trantsiziorako eta elikadura burujabetza finkatzeko aurrekontua mugatuak dira. - Gazte eta emakume asko landa eremuetatik migratzen dute, eta horrek ondorioak ditu nekazaritza eta elikadura ereduaren trantsizioan eta aldaketan. - Ez dago ekoizpenaren dibertsifikazioari, elikadura sare alternatiboei eta agroekologiari laguntzera bideratutako kreditu lerrorik.

Indarguneak (barnekoak)	Ahuleziak (barnekoak)
• Ekoizle baserritar eta agroekologikoen erakundeak sendoak eta aktiboak dira, eta tokiko gobernuetan eragiteko ahalmen gero eta handiagoa dute. • Ekoizle gehienak emakumeak dira, eta hori aukera ona da lurra eskuratzean eta erakundeetan erabakiak hartzean dauden desparekotasunak konpontzeko, elikadura sare alternatiboen bitartez. • Kasu gehienetan, ekoizpena handitzeko ahalmena dago, tokiko merkatu eta sare alternatiboak hornitzeko. • Azoka eta merkatu alternatiboak eskaintzen dituzten produktuen eskaintzak gora egiten du, eta, gero eta gehiago, produktu eraldatuak eta balio erantsia duten produktuak ikusten dira. • Ekoizleen erakundeak eta elkarteak gero eta finkatuago daude beren merkaturatze-eremuetan eta kontsumitzaile finakoak dituzte. Horrek, bada, eskalatze eta indartze aukera ona eskaintzen die.	• Ekoizleak eta erakundeetako bazkideak ez dira espero bezala hazi, batez ere landatik hirirako migrazioen ondorioz. • Zenbait elkarteak eta elikadura sare alternatibok nazioarteko lankidetzaren beharra dute funtzionatzeko, eta, hortaz, ez dira ekonomikoki iraunkorrak. • Kontsumitzaileek elikadura sare alternatiboetan duten parte-hartzea ez da oraindik nahikoa. Kontsumitzaileek sortutako erakundeak oso urriak dira. • Ekoizleek logistika eskasa dute, batez ere, uza biltegiratzeko eta elikagaiak tokiko azoka eta merkatuetara garraiatzeko. • Erakunde gutxiak lortu dute produktuak saltzeko eta kobratzeko tresna digitalak txertatzea, baina onartzen dute aurrera egin behar dutela arlo horretan.

Iturria: Egileak, ikerketan bildutako informazioan oinarrituta.

4. Nazioarteko lankidetzarako ikaspenak

Esperientzia horien azterketak hainbat ikaspen eskaintzen dizkigu, nazioarteko lankidetzak ESAak laguntzean izan dezakeen eginkizunari dagokionez. Zentzu horretan, nazioarteko lankidetzaren hiru jarduketa-eremu nagusi identifikatu ditugu, ESAak finkatzen lagunduko duen eskala-jauzia lortzeko:

1. Agroekologian eta elikadura burujabetzan oinarritutako ekoizpen baserritarra hobetzen, dibertsifikatzen eta merkaturatzen laguntzea

Nekazaritza eta elikadura sistemaren aldaketa laguntzera bideratutako garapen proiektuek ekoizpen baserritarra hobetzeko helburua izan beharko lukete, dibertsifikazioa eta jardunbide agroekologikoak tokiko testuingurura egokitzea sustatuz.

Lehen aipatu bezala, ekoizpen baserritar agroekologikoaren banaketa eta merkaturatzea botila-lepo nagusietako bat dira, eta nekazaritza eta elikadura sistema eskalatzea eta eraldatzea oztopatzen dute. Hortaz, nazioarteko lankidetzako estrategien eta proiektuen barruan arlo horiek lehenetsi beharra dago. Elkarriketatutako ekoizle baten hitzetan: “laguntza komunitario gutxi batzuk izan dira, eta GGKEen eta tokiko zenbait gobernuren ekarpen txikiak ere. Baina, egia esateko, ez da gure produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetu bitartez trantsizio agroekologiko bat bultzatzeko moduko inbertsiorik edo programarik egon” [komunikazio pertsonala La Esperanza komunitateko ekoizle agroekologiko batekin].

Hala ere, Gipuzkoak Foru Aldundiak 2014-2023 aldian Ekuadorrera bideratutako diru-laguntzak aztertzean, ikus dezakegu finantzatutako 26 proiektuetatik bi bakarrik daudela nekazaritza eta elikadura sistemekin lotuta (7. taulako 12. eta 18. proiektuak). Kasu bi horietan ere, laguntzak ez dira ESAk sustatzera bideratu, baizik eta ekoizleek kakaoaren balio-katearen barruan duten posizioa hobetzera.

7. Taula. Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekuadorrera bideratutako nazioarteko lankidetzako diru-laguntzak (2014-2023)				
Zkia.	Hasiera-urtea	Izena	CRS sektorea	Emandako kopurua Eurotan
1	2014	Articulación feminista para el ejercicio de los Derechos Sexuales y Reproductivos.	15170 - Emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeak eta instituzioak	92.682,09
2	2014	Articulación feminista para el ejercicio de los Derechos Sexuales y Reproductivos.	15170 - Emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeak eta instituzioak	57.241,88
3	2015	Mejora del ejercicio de los derechos sexuales y derechos reproductivos en las provincias de Chimborazo, el Oro y Orellana (Ecuador)	13030 – Familia-plangintza	93.427,97
4	2015	Mejora del ejercicio de los derechos sexuales y derechos reproductivos en las provincias de Chimborazo, el Oro y Orellana (Ecuador)	13030 - Familia-plangintza	56.558,94

Zkia.	Hasiera-urtea	Izena	CRS sektorea	Emandako kopurua Eurotan
5	2013	Fortalecimiento de actores y movimientos de economía social y solidaria en la Región Sur del Ecuador	16020 - Enplegua sortzea	88.242,3
6	2013	Fortalecimiento de actores y movimientos de economía social y solidaria en la Región Sur del Ecuador	16020 - Enplegua sortzea	58.847,61
7	2016	Ayuda de emergencia por terremoto en las provincias de Manabí y Esmeraldas (Ecuador)	99810 - Zehaztu gabeko sektoreak	30.000
8	2016	Acción humanitaria para atender a la población afectada por el terremoto en Ecuador	99810 - Zehaztu gabeko sektoreak	30.000
9	2016	Becas para jóvenes cooperantes: Formación e identificación de necesidades en saneamiento y atención primaria de salud	99820 - Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa	1.460
10	2017	Promoviendo DDSSRR y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka	61.424,9
11	2017	Promoviendo DDSSRR y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka	58.292,49
12	2018	Fomento agroforestal, productivo y comercial de cacao fino	99810 - Zehaztu gabeko sektoreak	19.995,98
13	2019	Promoviendo los derechos sexuales, reproductivos y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka	61.379
14	2019	Promoviendo los derechos sexuales, reproductivos y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskenganako indarkeriaren aurkako borroka	58.269,49
15	2019	Desarrollo Humano Local y DESCA en la comunidad Kichwa Pucará	99820 - Garapenarekin lotutako arazoei buruzko sentsibilizazioa	1.461,75

Zkia.	Hasiera-urtea	Izena	CRS sektorea	Emandako kopurua Eurotan
16	2020	Promoviendo los derechos sexuales, reproductivos y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskeenganako indarkeriaren aurkako borroka	56.399,81
17	2020	Promoviendo los derechos sexuales, reproductivos y una vida libre de violencia	15180 - Emakumeenganako eta neskeenganako indarkeriaren aurkako borroka	63.599,78
18	2020	Empoderamiento económico de mujeres Kichwas en cadenas productivas de cacao	32140 - Artisau-industria (Nekazaritza eta elikadura sistemak)	19.999,87
19	2021	Capacitación e inclusión laboral para personas con discapacidad y sus madres	11120 - Hezkuntzarako eta prestakuntzarako zerbitzu eta instalazioak	51.050
20	2021	Capacitación e inclusión laboral para personas con discapacidad y sus madres	11120 - Hezkuntzarako eta prestakuntzarako zerbitzu eta instalazioak	48.950
21	2021	Fortalecer capacidades del pueblo kichwa para luchar contra la violencia extractivista	15150 - Partaidetza demokratikoa eta gizarte zibila	50.970,63
22	2021	Fortalecer capacidades del pueblo kichwa para luchar contra la violencia extractivista	15150 - Partaidetza demokratikoa eta gizarte zibila	49.013,08
23	2022	Promoviendo derechos sexuales y reproductivos y una vida libre de violencia en Río Verde	15180 - Emakumeenganako eta neskeenganako indarkeriaren aurkako borroka	49.000
24	2022	Promoviendo derechos sexuales y reproductivos y una vida libre de violencia en Río Verde	15180 - Emakumeenganako eta neskeenganako indarkeriaren aurkako borroka	49.000
25	2022	Estación resiliente. Fomento de la creatividad juvenil a favor del medio ambiente	41081 - Ingurumen-arloko hezkuntza/prestakuntza	20.000
26	2023	Promoviendo los derechos de los más vulnerables del cantón Santa Marianita	15170 - Emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeak eta instituzioak	19.994,21
	Total			1.247.261,78

Iturria: Egileak, Euskal Lankidetzaren Atariko datuetan oinarrituta.

2. Ekoizpen baserritarra eta agroekologikoa zuzenean hornitzen duten kontsumitzaile-sareak indartzea eta laguntzea

Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko salmenta zuzena indartzea ezinbestekoa da supermerkatuen eta agronegozioaren nagusitasunaren aurrean alternatibak eraikitzeko. Horretarako, landaren eta hiriaren arteko harremanak indartzera bideratutako ekimenak sustatu beharra dago; izan ere, gaur egun, erakunde gutxik dute aliantza horiek indartzeko helburua.

Zentzu horretan, beraz, garrantzitsua da unibertsitateen, ekoizleen erakundeen eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak indartzea. Etorkizunera begira, lankidetzak unibertsitateetako langileen eta ikasleen prestakuntza programak susta ditzake, ekoizleen eta kontsumitzaileen eginkizuna eta haien arteko harremanak indartzeko eta produktu agroekologikoen kontsumoa bultzatzeko. Akademiak, eginkizun garrantzitsua izan dezake harreman horiek indartuko dituzten ezagutzak eta jardunbideak transferitzean.

Ikerketa honetan jaso bezala, kontsumoaren aldetik oso erakunde gutxik hartzen dute parte nekazaritza eta elikadura sistema eraldatzeko eta ESAk indartzeko eztabaidetan.

3. Tokiko eta nazio-mailako politika publikoetan eragitera bideratutako ekimenak laguntzea, ESAk eta tokiko azokak finkatzeko eta ekoizpen dibertsifikatua eta agroekologikoa sustatzeko helburua dutenak

ESAen eskala-jauzia lortzeko politika publikoek gehiago lagundu behar dute. Bere aldetik, garapenetako lankidetzak ekoizleek eta kontsumitzaileek lideratutako proiektuak lagun ditzake, agroekologiaren eta nekazaritza baserritarraren baldintzak hobetzeko helburuz.

Horretarako, funtsezkoa da politika publikoek ekonomia baserritarren ahulgune nagusiak lantzea, hala nola lurraren banaketa desparekoa, merkatuetarako eta merkaturatzeko beste eremu batzuetarako sarbide mugatua, eta ekoizle txikiek duten laguntza finantzario eta tekniko eskasa. Beraz, eragin politikoko ekintzak egin behar ditugu eremu horietan.

Tokiko gobernuek eta gobernu nazionalak agroekologia eta elikadura burujabetza indartzera bideratzen dituzten baliabideak oso eskasak dira, Konstituzioaren 218. artikulua hori aldarrikatzen duen arren.

4. Pertsonen eta instituzioen arteko elkarriketa, ESAak eraldatzeko ikaspenak eta laguntza emango dituen garapenerako lankidetzak bat lortzeko.

Tartean dauden pertsonen eta erakundeen arteko adostasuna sustatu beharra dago, garapenerako lankidetzak zer den zehazteari dagokionez, azken horrek ESAak eraldatzen lagun dezan.


Lankidetzak, bada, prozesuan parte hartzen duten alderdi guztien arteko elkarriketa eta inplementazio koordinatu gisa ulertu behar dugu. ESAen kasuan, lehen esan bezala, argi ikusten dugu da ez dagoela elikadura sistema baserritarrak eta kontsumo arduratsua bultzatuko dituzten elikadura sistemak finkatzeko konexiorik edo elkarriketarik.

Ekuadorren kasuan, adibidez, ESAak eta elikadura burujabetza sustatzen dituzten legeak daude, baina egiten diren politika publikoek ez dute eraldaketa hori lehenesten.

Garapenerako lankidetzan parte hartzen duten alderdien arteko elkarriketa egoki bat lagungarria izan daiteke elikadura sistemaren eraldaketa bultzatuko duten ekintzak identifikatzeko eta bultzatzeko.



Ondorioak



Nagusi den elikadura-sistema eraldatzeko aldaketa erradikalak egin beharra dago kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko harremanetan, nekazaritzako eta elikadurako balio-katearen barruan. Elikadura sare alternatiboek ekoizpen, banaketa eta kontsumo eremu bidezkoak eta iraunkorrak sortzeko aukera ematen digute. Iparraldean zein Hegoaldean, ESAek ustiategi txikiak –eta normalean agroekologikoak eta baserritarrak– eta kontsumitzaile taldeak artikulatzeko helburua dute, bai kontsumo taldeak sortuz, bai tokiko merkatuetan eta merkaturatzeko beste kanal batzuetan salerosiz.

Sare horiek nekazaritza eta elikadura sistema konbentzionalaren aurrean gune alternatibo gisa finkatzeko erronka nagusietako bat da, hain zuzen, eskala-jauzia. Izan ere, horrek kostu operatiboak murrizteko eta gizarte-oinarria zabaltzeko tresna da, eta ekoizle eta kontsumitzaile gehiagoren sarbidea eta parte-hartzea errazten du.

Ikerketa honetan aztertutako kasu bietan, egoera desberdina da. Gipuzkoako kasuan, gero eta kontsumitzaile talde eta kolektibo gehiago daude sare horietan parte hartzeko prest, eta botila-lepo nagusia tokiko produktu agroekologikoen eskaintza txikia da. Lehentasunezkoa da tokian edo lurraldean ekoizpen agroekologikoa sustatzea, baina epe laburrean irtenbide alternatiboak behar ditugu, hala nola produktuak hurbileko beste toki batzuetan bilatzea, bai banaka eta bai hornikuntza unitate edo bilketa-zentro bat sortuz. Azken hori mugaz gaindiko harremanen ohiko oztopoak hausteko gai izan beharko da. KKTen ezaugarriak (eta beharrak) desberdinak dira, eta horrek lankidetzaharremanak ezartzeko zailtasunak sortzen ditu, baina aniztasun horrek baditu abantailak ere. KKTen arteko lankidetzaren abantailen artean honako hauek dira nagusi:

- Kontsumo Kooperatiben arteko lankidetzak KKT bakoitzak eskaintzen dituen elikagaiei buruzko informazioa partekatzeko aukera eman dezake, eskaintza osatzeko. Gainera, tamaina txikiagoko elkarteek beste kontsumo-kooperatiba handiago batzuen logistika balia dezakete, beren kostuak murrizteko eta bazkideei elikagai agroekologikoak eskuratzeko aukera emateko.
- Zentzu horretan, HU bat elkarrekin sortzea lagungarria izan daiteke Iparraldean edo inguruko beste lurralde batzuetan kokatutako ustiategi agroekologikoetara heltzeko, eta pizgarri bat da eskualde jakin bateko ekoizleak antolatzen has daitezen.
- Beste alde batetik, HUen baterako eskariak sustatzean abian dauden HU horiekin harremanak garatzeko aukerak esplora ditzakegu, eta hala horien efizientzia hobetu, eskaria indartu eta bideragarritasun ekonomikoa sustatu ahal izango ditugu.

Nolanahi ere, HU baten sorkuntza ekimen kooperatiboetatik etorri behar da, hain zuzen, ekoizleek (ustiategiak, eraldatzaile txikiak) eta KKTek osatzen dituzten eta beren interesei erantzuten dieten horietatik. Gure kasuan, Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait KKTtan identifikatu dugu horrelako HU bat egituratzeko beharra, baita Iparraldeko nekazarien artean ere. Hala ere, azken horien beharrak eta eskakizunak aztertzeko ikerketa sakonagoa egin beharko genuke agian.

KKTen zein –kasu honetan– Iparraldeko ekoizleen eskutik sor daitekeen HU batek hainbat abantaila eskaini ditzake. Hortaz, KKTen arteko ezagutza hobetu beharra dago, eta, nola ez, Iparraldeko ekoizleen egoera ezagutu, proiektu bakoitzaren baldintzetara moldatuko den HU bat diseinatu ahal izateko. Katearen maila desberdinetako eragileen arteko lankidetzaren prozesua garatzea, gainera, erakusgarria izan daiteke, eta Gipuzkoako eta Nafarroako ekoizleak ekimen horietan parte hartzera animatu ditzake. Gainera, HU bat sortzeak merkatu-hobi berriak hornitzeko aukera eman dezake, hala nola jatetxeak edo jantoki kolektiboak.

Bere aldetik, Ekuadorren produktu agroekologikoak merkaturatzeko ekimen ugari daude, nekazariak bultzatuta, baina eskari atomizaturia eta ez oso egituraturia dute. Ez dago ia kontsumitzaileen erakunderik edo elkarterik. Hau da, erakunde gehienak ekoizleenak dira, konturatzen baitira batasuna oso garrantzitsua dela aldaketak lortzeko eta merkaturatze-gune alternatiboak sortzeko eta indartzeko.

Ekoizleek eta haien erakundeek, bada, beren ekoizpena handitzeko ahalmena dute. Ekoizpen hura, normalean, honako hauen bitartez bideratzen dute: bezero finkoei (enpresa pribatu eta publikoetako langileak) zuzendutako saskiak, azokak eta merkatuak, eta ikastetxeetan eta unibertsitateetan saltzea. Hala ere, oro har, ez dute HU edo saltoki propiorik beren produktuak merkaturatzeko. Ekuadorren kasuan, ekoizle gehienak emakumeak dira. Haien zatik, onura ez da ekonomikoa soilik; gaitasunak garatzearekin, genero berdintasunarekin eta luraren jabetzarekin ere lotuta dago.

Trebakuntzaren beharra ikusi dugu, ekoizpena hobetzeko elementu garrantzitsu gisa, batez ere uztari eta uztar osteko prozesuei (paketatzea eta aurkezpena) dagokienez, baina baita merkaturatzeari ere (merkatu-ikerketak, salmentak, bezeroentzako arreta, etab.). Eskariari dagokionez, argia da azokek eta jatetxeek ez dutela eskaintza agroekologikoaren kantitate nahikoa hartzen.

Ikerketaren irismena dela eta, ezin dugu garapenerako lankidetzaren potentzialari buruzko ondorio askorik atera, Gipuzkoako lankidetzaren eta Ekuadorren arteko harremanaz harago. Lehen aipatu bezala, 2014-2023 aldiko funtsen % 3 lehen

sektorera bideratu dira, baina ez, antza denez, ESAak sortzera. Hortaz, garapenerako lankidetzak ESAei laguntzeko dituen aukerak esploratzeko tarte handia dago. Jarraian, jarduketa-ildo batzuk proposatuko ditugu esparru horretan:

- *Banaketan eta merkaturatzean laguntzea*, ekoizleek balio katean duten posizioa eta merkaturatzeko eta banatzeko baldintzak optimizatzeko helburuz. Horretarako, biltegiatzea, etiketatzea, paketatzea, logistika eta banaketa hobetzeko ekintzak eta inbertsioak egitea. Halaber, eskualdeko dendak eta jantoki kolektiboak (eskolak, ospitaleak edo unibertsitateak) hornitzeko bilketa-zentroak sortzen laguntzea. Gure inguruko HUAk sortzeko prozesuen ikaspenak lagungarriak izan daitezke prozesu horiei aurre egiteko.
- *Kontsumitzaileen asoziazionismoari laguntzea, eta, horretarako, kontsumitzaileen elkarteak sortzeko prozesu partizipatiboak eta kontsumitzaileen eta ekoizleen kolektiboen arteko aliantzak erraztea*. Prozesu horien helburua erakunde egonkorrak sortzea izan behar da, eskari nahikoa modu egonkorrean artikulatu ahal izateko. Beraz, klase herritarrek elikagai osasungarriak eta behar-beharrezko beste ondasun batzuk bidezko prezioetan eskuratzen dituztela bermatzea, esate baterako, supermerkatu kooperatiboen, tokiko merkatuen edo merkaturatzeko beste egitura alternatibo batzuen bitartez.
- *Erakundeei politikan eragiten laguntzea*. ESAen eskala-jauzia lortzeko beharrezkoa da administrazio publikoen laguntza. Horretarako, politika publikoek ekonomia baserritarren ahulezia estrukturalak landu behar dituzte. Hortaz, politikan eragiteko jarduerak egin behar dira arlo horietan.



Bibliografia

1. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

2. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

3. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

4. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

5. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

6. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

7. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

8. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

9. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

10. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

11. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

12. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

13. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

14. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

15. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

16. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

17. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

18. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

19. *Il libro della memoria*, di Giulio Cesare Cantù, Garzanti, 1997.

1. C. Unigarro (2015). Sistemas alimentarios y patrimonio alimentario. Transculturaciones en el caso ecuatoriano. *Antropología Cuadernos de investigación*, 15, 21–34.
2. W. Willett, J. Rockström, B. Loken, M. Springmann, T. Lang, S. Vermeulen, et al. Food in the Anthropocene: the EAT– Lancet Commission on healthy diets from sustainable food systems. *The Lancet* 393 (10170) (2019) 447-92.
[https://doi.org/10.1016/S0140-6736\(18\)31788-4](https://doi.org/10.1016/S0140-6736(18)31788-4)
3. C. Mbow, C. Rosenzweig, L.G. Barioni, T.G. Benton, M. Herrero, M. Krishnapillai, et al. Food Security In: Climate Change and Land: an IPCC special report on climate change, desertification, land degradation, sustainable land management, food security, and greenhouse gas fluxes in terrestrial ecosystems. 2019. <https://www.ipcc.ch/srccl/>
4. S. Díaz, J. Settele, E. S. Brondízio E.S., H. T. Ngo, M. Guèze, J. Agard, A. Arneth, P. Balvanera, K. A. Brauman, S. H. M. Butchart, K. M. A. Chan, L. A. Garibaldi, K. Ichii, J. Liu, S. M. Subramanian, G. F. Midgley, P. Miloslavich, Z. Molnár, D. Obura, A. Pfaff, S. Polasky, A. Purvis, J. Razzaque, B. Reyers, R. Roy Chowdhury, Y. J. Shin, I. J. Visseren-Hamakers, K. J. Willis, and C. N. Zayas (eds.) Summary for policymakers of the global assessment report on biodiversity and ecosystem services of the Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services. IPBES secretariat, Bonn, 2019.
<https://www.ipbes.net/global-assessment>
5. K. Hernández-Lozano. La mochila tóxica de la producción agraria insostenible. Análisis de la inadecuada evaluación de la toxicidad de los plaguicidas en la UE. Sociedad Española de Agricultura Ecológica y Agroecología (SEAE), WWF, Ecologistas en Acción, 2022.
<https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/2022/04/informe-la-mochila-toxica.pdf>
6. M. Crippa, E. Solazzo, D. Guizzardi, F. Monforti-Ferrario, F.N. Tubiello, A. Leip, Food systems are responsible for a third of global anthropogenic GHG emissions. *Nature Food*. 2 (2021) 198-209.
<https://doi.org/10.1038/s43016-021-00225-9>
7. Secretariat of the Convention on Biological Diversity. Global Biodiversity Outlook 5. Montreal: 2020.
<https://www.cbd.int/gbo/gbo5/publication/gbo-5-en.pdf>


8. K. Richardson, W. Steffen, W. Lucht, J. Bendtsen, S.E. Cornell, J.F. Donges, et al. Earth beyond six of nine planetary boundaries. *Sci. Adv.* 9 (37) (2023) eadh2458. <https://doi.org/10.1126/sciadv.adh2458>
9. P. Homs Ramírez de la Piscina & B. Martínez Álvarez. Dignity and just prices: The moral economies of farming in the age of Agro-Industry. *Disparidades Revista de Antropología* 76(1) (2021), e006. <https://doi.org/10.3989/dra.2021.006>
10. H. Renting, T.K. Marsden, & J. Banks. (2003). Understanding alternative food networks: Exploring the role of short food supply chains in rural development. *Environment and planning A*, 35(3), 393–411.
11. FAO. (2024). Ecuador en una mirada. Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación. <https://www.fao.org/Ecuador/fao-en-Ecuador/Ecuador-en-una-mirada/es/>
12. X. A. León Vega. (2018). Soberanía alimentaria. Sistema agroalimentario, movimientos campesinos y políticas públicas. El caso de Ecuador.
13. C. Villacís Cárdenas. (2018). Análisis de la evolución del sector retail en el Ecuador, durante el periodo 2007 al 2017.
14. i. Giunta (2018). Soberanía alimentaria entre derechos del buen vivir y políticas agrarias en Ecuador. *Theomai*, 38, 109–122.
15. J.D. García Merino, M.Á. Peña Cerezo, A. Rodríguez Castellanos. Métodos cuantitativos versus métodos cualitativos en la Economía de los Negocios. ¿Es una metodología irreconciliable? *Econoquantum*, 3(2) (2007), 117-50. <https://doi.org/10.18381/eq.v3i2.2594>
16. Nyéléni. Declaración de Nyéléni. Nyéléni, Sélingué, Malí. (2007). <https://nyeleni.org/IMG/pdf/DeclNyeleni-es.pdf>
17. IPES-Food. Communiqué by IPES-Food. 2020. https://ipes-food.org/wp-content/uploads/2024/03/COVID-19_CommuniqueEN3.pdf
18. J. Murdoch, T. Marsden., & J.Banks (2017). Quality, nature, and embeddedness: Some theoretical considerations in the context of the food sector. In *The Rural* (pp. 107-126). Routledge.

19. D. Goodman. (2012). Alternative food networks: Knowledge, practice, politics.
20. D. Maye (2013). Moving alternative food networks beyond the niche. *The International Journal of Sociology of Agriculture and Food*, 20(3), 383–389.
21. D. López-García. (2012). Canales cortos de comercialización, un elemento dinamizador. *Soberanía alimentaria, biodiversidad y culturas*, 8, 0020–0024.
22. A. Harper, A. Shattuck, E. Holt-Giménez, A. Alkon, & F. Lambrick. (2009). Food policy councils: Lessons learned. Citeaser.
23. J. Sanz-Cañada, C. Yacamán-Ochoa & R. Pérez-Campaña. Are agroecological cooperative supermarkets an alternative for scaling sustainable food? *Front. Sustain. Food Syst.* 8:1395819 (2024).
<https://doi.org/10.3389/fsufs.2024.1395819>
24. D. Pérez Neira, D., & M. Soler Montiel. (2013). Agroecology and ecofeminism to decolonize and depatriarchalize global food. *Revista Internacional Pensamiento Politico*, 8, 95.
25. E. Kirwan (2008). La canasta comunitaria: una plataforma urbano- rural para la seguridad alimentaria. *Revista de Agroecología*, 3(24), 26-29.
26. INEC. (2024). Censo de Población y Vivienda. Instituto Nacional de Estadísticas y Censos. URL: <https://www.Ecuadorencifras.gob.ec/estadisticas/>
27. MAG. (2025). Circuitos Alternativos de Comercialización (CIALCO). URL: <https://www.agricultura.gob.ec/coordinacion-de-redes-comerciales/>
28. D. Goodman. (2012). Alternative food networks: Knowledge, practice, politics.
29. M.A. Altieri (2009). Escalonando la propuesta agroecológica para la soberanía alimentaria de América Latina. *Agroecología*, 4, 39–48.
30. M.A. Altieri & V.M. Toledo (2011). The agroecological revolution in Latin America: Rescuing nature, ensuring food sovereignty and empowering peasants. *Journal of peasant studies*, 38 (3), 587–612.
31. B. Macas & K. Echarry. (2009). Caracterización de mercados locales agroecológicos y sistemas participativos de garantía que se construyen en el Ecuador. *Coordinadora Ecuatoriana de Agroecología*, Quito.

32. Jaramillo, S. G., & Kirwan, E. (2009). Las canastas comunitarias en Ecuador: Una apuesta por la salud, la economía y la solidaridad. *Letras Verdes. Revista Latinoamericana de Estudios Socioambientales*, 5, 9–11.
33. León-Vega, X., Pazmiño-Mayorga, J., Vivas-Vivas, R., & Cepeda-Bastidas, D. (2022). Espacios de formación y comercialización agroecológica: Lecciones aprendidas en la Universidad Central del Ecuador. *LA GRANJA. Revista de Ciencias de la Vida*, 35(1), 59–71.
34. Asamblea Nacional Constituyente. (2008). Constitución de la República del Ecuador.



Eranskinak



1. Eranskina. Hornikuntza unitateen elkarriketarako fitxa

Lan prozesuaren deskribapena

Mesedez, azaldu zuen lan-prozesua:

- Ekoizleekiko harremana (ekoizpen-ereduak, ezarritako irizpidea, ekoizpenaren plangintza, eskaintza kolektiboa vs. banakakoa)
- Produktua jasotzea (nor? noiz?), eskatzeko mekanismoak eta ordainbideak.
- Eskaeren kudeaketa, picking. Eskaerak antolatze mekanismoak? Kantitate handiak modu erregularrean hornitzeko arazoak?
- Banaketa: Nola egiten dira banaketak? Iparraldean banatzen dira? Zein maiztasunekin?
- Bezeroekiko harremana (bezeroen profil desberdinak, hartu beharreko konpromisoa...)

Merkaturatze kanalak eta banaketaren baldintzak

- Merkaturatzeko zer kanal motak erabiltzen dituzue: dendak, jantoki kolektiboak, jatetxeak, partikularrak... Nork du pisu gehien/gutxien HUaren funtzionamenduan?
- Eta horietako bakoitzari zer baldintza jartzen zaizkio (ekoizleko gutxieneko eskaera, gutxieneko eskaera totala, eskatzen denetik banatzen den arte zenbat egun...)
- Elikagai mota bakoitzak (freskoak, eraldatuak) bete behar dituen baldintzak (maiztasuna, garraio hotsua, etab.)
- Garraioan erabilitako ontziak eta produktuen ontziak berrerabil daitezke?

Antolakuntza ereduak

- Barne egitura, erabakitzeko ere muak eta ekoizleen/bazkideen erabakitzeko ahalmena.
- Proiektuaren babesle diren erakundeekiko harremana.

Alderdi ekonomikoak

- Nekazariaren marjina eta HUaren marjina. Marjin bera ezartzen al da beherapen-bide guztietan? Prezio lehiakorak al dira Sukalde Kolektiborako? Zer kanalen bitartez fakturatzen dute gehien? Eta zer kanaletik gutxien?
- HUak marjinen, diru-sarreraren eta diru-laguntzen bitartez fakturatutakoa alde batera utzita:
- Zein da HUaren kosturik handiena? Zer oztopatzen du HUaren bideragarritasun ekonomikoa? Eta zer errazten du?
- Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman ekonomikoek arazoak eragiten dituzte?

Sustapen eta komunikazio lanak

Nola egiten dira sustapen-lanak?

Gorabeherak kudeatzeko protokoloak:

DAFO

Beste batzuk

2. Eranskina. Gipuzkoako Kontsumo kooperatibei Zuzendutako galdetegia

Izen Soziala:				
Langile kopurua:				
Fakturazioa (datu hau konfidentziala da):				
Iparraldetik inportatzen diren produktuak				
Merkataritza harremanak al dituzue Iparraldearen eta Hegoaldearen artean? ☐ Bai ☐ Ez				
Zer produktu inportatzen duzue gaur egun?				
- Produktua		- Ekoizlea		- Artekaria
Esperientzia horri buruz informazio gehiago emateko eskatzen dizugu: eskaerak egiteko modua, nork egiten duen garraioa, maiz eskatzen duzuen ala noizean behin, aurkitutako zailtasunak...				
Eskaria handitzeko interesa				
Zer produkturen eskaria handitu nahiko zenuke?				
☐ Barazkiak	☐ Fruituak	☐ Haragia	☐ Arraina	☐ Esnekiak
☐ Kontserbak	☐ Ogia	☐ Gozokiak	☐ Edariak (alkoholik gabekoak)	
☐ Edariak (alkoholdunak)				
Zer produktu ekarri nahiko zenuke Iparraldetik?				
☐ Barazkiak	☐ Fruituak	☐ Haragia	☐ Arraina	☐ Esnekiak
☐ Kontserbak	☐ Ogia	☐ Gozokiak	☐ Edariak (alkoholik gabekoak)	
☐ Edariak (alkoholdunak)				
Mesedez, aipatu produktua:				
Aipatutako produktuen kantitatearen aurreikuspen bat eskatu nahi dizugu.				
Zer irizpide bete behar dute elikagaiek (lehentasuneko irizpide bat, eta bete beharreko irizpideak ordenan kuantifikatu):				
☐ Iparraldean ekoiztua izatea (eraldatuen kasuan, lehengaiak Iparraldekoak izatea)				
☐ Ekoizleari zuzenean erostea				
☐ Nekazaritza ekologikoa				
☐ Besterik				
Tokiko hornikuntza unitateekin izandako esperientzia				
Esperientziarik izan duzue tokiko produktuarekin lotutako HUren batekin? ☐ Bai ☐ Ez				
Zein HUrekin zehazki?				
Oraindik egiten dizkiozue eskaerak? ☐ Bai ☐ Ez				

Zer nolako zailtasunak aurkitu dituzue esperientzia horri dagokionez?

- ☐ Produktuaren kalitatea dendara heltzean.
- ☐ Eskaerak egiteko eskatutako aurrerapena.
- ☐ Produktu eskasia.
- ☐ Produktua etengabe eskuragarri ez egotea
- ☐ Banaketaren maiztasuna
- ☐ Kostua
- ☐ HUarekiko harremana, gorabeherak konpontzeko zailtasunak
- ☐ Ekoizleei buruzko informazio maila
- ☐ Gutxieneko eskaera kopurua

HU batek bete beharreko baldintzak

Zer baldintza bete behar ditu HU baten zerbitzuak Kontsumo Kooperatiba behar bezala hornitzeko? (Ordenatu 1etik 5era garrantzi-mailaren arabera, 1 garrantzirik txikiena eta 5 handiena izanik)

- ☐ Banaketa maiztasun egokia
- ☐ Eskaintza zabala
- ☐ Eskaintza erregularra
- ☐ Elikagaiak behar bezala heltzea dendara, kalitate ona
- ☐ Gorabehereri aurre egiteko gaitasuna
- ☐ Dataren aurretik eskaerak egiteko aukera ematea
- ☐ Eskaeren gutxieneko kopurua.
- ☐ Ordainbidea
- ☐ Besterik

Eskaerak modu koordinatuan egiteari dagokionez, eskaeren koordinazioa eta banaketa beste Kontsumo Kooperatiba batzuekin antolatzeke prest egongo zinateke?

- ☐ Bai ☐ Ez ☐ Baldintzen arabera

HUaren funtzionamendua bermatzeko konpromisoei dagokienez, gutxieneko konpromiso bat eskatzeko prest egongo zinateke?

- ☐ Bai ☐ Ez ☐ Baldintzen arabera

HUaren antolakuntzan kontuan hartu beharreko beste informaziorik

3. Eranskina. Merkaturatze zirkuitu laburren esperientzia agroekologiko nagusiak Pichincha, Imbabura eta Cotopaxi probintzietan

1. Pichincha: Merkaturatzeko azoka alternatiboak eta merkatu agroekologikoak *Madre Tierra. Alimentos Sanos*

Esperientziaren izena

Madre Tierra. Alimentos Sanos. “Sur Siendo. Redes y Sabores” kontsumitzaile-kooperatibak bultzatutako eremua da, eta hiru probintziatako zazpi erakunde baserritar eta agroekologiko artikulatzen ditu.

Bi azoka mota daude:

1. Auzoko azokak. Kontsumitzaile taldeak eskaerak egiten ditu eta familien artean banatzen ditu.
2. Madre Tierra azokak, espazio publikoan.
 - “Mercado Madre Tierra”. Biloxi auzoa – Osorio eta Hernán Gmoiner, polizia-etxearen aurrean – Larunbatetan, 7:00etatik 14:00etara.
 - “La Canasta”. Sede Nacional de la Casa de la Cultura – Patria eta 6 de diciembre. Larunbatetan, 9:00etatik 15:00etara.
 - “Siembra por la Vida”. Carcelén José Enríquez Guerrero eta Francisco Sánchez – Ostiraletan, 6:00etatik 13:00etara.
 - “Casa mitómana”. Casa Mitómana – Mariana de Jesús eta Martín de Utreras – Asteartean, 8:00etatik 13:00etara.
 - “Mikuyita Karana”. Parqueadero Codesarrollo – Ladrón de Guevara eta Barcelona – Larunbatetan, 7:00etatik 12:30era.
 - “Eco feria Allpa Maki”. Llano Grande etxe komunalaren ondoan – Inga Huayco eta Gabriel García – Igandeetan, 9:00etatik 13:00etara.
 - Madre Tierra biodenda. Juan Márquez eta Francisco Gómez. (La Villaflores sektorea)

Azokez gain, biodendak eta 4-5 kideko familiei zuzendutako saski agroekologikoak ere badituzte. Saskiek \$15 balio dute. Bi saski mota daude: 1. karbohidratoak, barazkiak eta fruituak; eta 2. fruituak bakarrik.

Kokapena

Pichincha, Quito. Batez ere, Quitoko hegoaldean eta erdialdean lan egiten dute.

